



GRADUA: EKONOMIA

2016/2017 ikasturtea

ERRESILIENTZIA EKONOMIKOA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESKUALDEEN KASUA

Egilea: Aitor Irastorza Fadrique
Zuzendaria: Juan Ramon Murua Mugica

Bilbo, 2017ko ekainaren 30a

Gaien Aurkibidea

1	Hitzaurrea	2
2	Sarrera, helburuak eta metodologia	3
2.1	Sarrera	3
2.2	Lanaren helburuak	4
2.3	Erabilitako metodologia	5
3	Literaturaren errebasoa: erresilientzia	7
4	EAEko eskualdeak: dibertsitate ekonomikoa	10
4.1	Demografia	11
4.2	Ekonomia-egitura	13
4.3	Enpresa-egituraketa	15
4.4	Lan-merkatua	18
4.5	Ikerketa eta Garapena	20
4.6	Ekonomia dinamismoa	22
4.7	Garapen Agentziak	24
4.7.1	Goieki Goierriko Garapen Agentzia	25
4.7.2	Lea Artibaiko Garapen Agentzia eta Azaro Fundazioa	26
5	Analisi enpirikoa: erresilientzia eta enplegua	27
5.1	Datuak eta aldagaiak	28
5.1.1	Aldagai dependente edo endogenoa: enpleguaren aldakuntza	28
5.1.2	Aldagai independente edo exogenoak	29
5.2	Eredu ekonometrikoa	33
5.3	Emaitzak	33
6	Ondorioak	36
7	Erreferentziak	38
8	Eranskina	42
8.1	Eskualdeen sailkapen ezberdinak (EUSTAT, Eusko Jaurlaritz)	42
8.2	Udalerrriak eskualdeka	43
8.2.1	Araba	43
8.2.2	Bizkaia	43
8.2.3	Gipuzkoa	44
8.3	Erabilitako aldagaiak	45
8.4	Aspektu teorikoak: erresilientzia	46
8.5	EAEko eskualdeak: dibertsitate ekonomikoa	46
8.5.1	Populazioa. Eskualdeen pisua	46
8.5.2	Garapen Agentziak	47
8.6	Analisi enpirikoa: erresilientzia eta enplegua	47
8.6.1	BPGaren bilakaera EAEn	47
8.6.2	Arabako eskualdeak. Outlierrak.	48

Laburpena. *2008 urtean lehertutako krisi ekonomikoak agerian utzi zuen lurraldeen gaitasun ezberdina shock egoera baten aurrean. Hauetariko batzuk, krisiari erantzuteko gaitasuna eta indarra erakutsi ohi dute; beste batzuk, aldiz, erreakziorako tarte txikia izaten dute. Lan honetan, eskualde bakoitza zerk egiten duen berezi eta zerk bereizi aztertzeko, lehenik Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeen analisi sakona burutzen da, iturri estatistiko nagusietan oinarritua, ondoren, eskualdeko erresilientzia-mailan eragiten duten faktore ezberdinak identifikatu eta zehazteko. Lortutako emaitzek, enpresa-traktoreen pisuak, biztanleria atzerriarraren presentziak, kooperatiben pisuak eta krisiarekiko lehen erantzunak eskualde horretako erresilientzia mailan eragin esanguratsua dutela erakusten dute.*

Resumen. *La crisis económica iniciada en el año 2008 puso de manifiesto la diferente capacidad de los territorios para hacer frente a los efectos adversos de la misma. Mientras algunas regiones son capaces de iniciar antes la recuperación, otras contemplan como las consecuencias se alargan en el tiempo. Con el objetivo de profundizar en el problema planteado, el trabajo realiza en primer lugar un análisis exhaustivo de la realidad comarcal de la Comunidad Autónoma Vasca, basado en los datos de las principales fuentes estadísticas, para en segundo lugar identificar y determinar el impacto de diferentes factores en el grado de resiliencia. Los resultados indican que el peso de las empresas tractoras, la presencia de la población extranjera, el peso de las cooperativas y la respuesta inicial a la crisis impactan sobre el nivel de resiliencia de estos territorios.*


Abstract. *The economic crisis that began in 2008 revealed the different capacity of the territories to deal with the adverse effects of the same. While some regions are able to initiate recovery earlier, others contemplate how the consequences lengthen over time. Thus, the work firstly conducts a thorough analysis of the regional reality of the Basque Autonomous Community based on data from the main statistical sources, to secondly identify and determine the impact of different determinants in the degree of resilience. The results indicate that the weight of driving-force companies, the presence of the foreign population, the weight of cooperatives and the initial response to the crisis have an impact on the level of resilience of these territories.*

1 Hitzaurrea

Lerro hauek idazten ari naizen momentuan, euria ari du Zaldibian, Goierriin. Telefonoa hartu eta izebari deitu diot; Bizkaiko lurretan bizi da bera; hain zuzen ere, Santurtzin, Ezkerraldean, Bilbo Handian. Han, zero urdinik ez, baina euririk ere ez omen du ari. Eguraldiaren portaera ez da berdina han eta hemen. Hemen eta han. Eguraldia ulertzen ez dago erraza.

Antzeko zerbait gertatzen da ekonomiarekin, eta beraz, ekonomia ulertzen ere ez dago erraza. Portaera eta erantzun ezberdinak ditu han eta hemen. Hemen eta han. Kriariaren olatua tsunami handi bat bailitzan iritsi zen Kantauri itsasadarretik, baina ez ditu berdin busti eremu eta txoko guztiak. Batzuk erdi lehortuta daude dagoeneko; beste batzuk guztiz bustita jarraitzen dute. Baina, hori zergatik? Zerk eragiten du guzti horretan?

Ezer baino lehen, Juan Ramon Murua lan honetako bidelagunari esker oneko hitz batzuk helarazi nahi dizkiot, olatu handi horretako zipriztinak sailkatzen, arakutzen eta identifikatzen lagundu didalako, sarritan surfeko taula hartu eta batera aurre egin diogulako olatutzar horri, eta olatuak irentsi ez nendin haizea nondik zebilen adierazi didalako. Mila esker!!

A handwritten signature in black ink, enclosed in a large, hand-drawn oval. The signature appears to be 'Aitor Irujo'.

2 Sarrera, helburuak eta metodologia

2.1 Sarrera

2008an egin zuen eztanda krisi ekonomikoak eta munduko txoko ezberdinak zipriztindu zituen. Ekonomiaren alor ezberdinetan izan du eragina baina ondorio agerikoenetariko bat lan-merkatuan aurkitu daiteke. Zehazki, enplegu galera izugarria ekarri du; eraikuntza sektorean adibidez, baina baita beste sektore garrantzitsu batzuetan ere.

Hizpide dugun krisi ekonomikoaren ondorioz, hamarkada batzuk lehenagotik zetorren eskualdeen arteko konbergentzia prozesuan etenaldia eman da. Kasu askotan gainera, eskualdeen bateratze-ibilbide horiek gelditu eta euren arteko prozesu dibergenteak sortu dira, eskualdeen arteko norabide-ezberdintasunak agerian utziz.

Arrazoi ezberdinak medio, krisiaren bortizkeriak ez du eragin berdina izaten eskualde guztietan. Hauetariko batzuk, erreakziorako tarte txikia izaten dute; beste eskualde batzuk, aldiz, krisiari aurre egiteko gaitasuna eta indarra erakutsi ohi dute. Hori horrela, eskualdeen arteko ezberdintasunak areagotzen joan daitezke. Hala, eskualdeen artean desoreka garrantzitsuak ematen ari dira, eremu geografikoen arabera ezberdintasunak nabarmentzen direlarik. Eztabaidarako interesgarri gerta dakizkigukeen bi kontzeptu daude aurreko baieztapen horien oinarrian: erresilientzia eta zaugarritasuna.

Euskal Autonomia Erkidegoak (aurrerantzean, EAE) beste eskualde eta erkidego batzuekin alderatuta krisiaren aurrean erakutsi duen portaera sendoagoa izan da. Hainbat argudio egon daitezke horren atzean, besteak beste, industria sektoreak ekonomia-jardueran duen pisua, adreiluarekiko menpekotasun ez hain handia, Ikerketa eta Garapena bezalako alorretan inbertitzeko apustu irmoa, Kontzertu Ekonomikoa eta egitura instituzionala (Gil Álvarez, 2014). Ildo berean, gobernu ezberdinekin industria garatzeko aurrera eramandako berrikuntza-politiken apustua ere azpimarratzekoa da (Mendez et al., 2015). Hala ere, EAE barneko eskualde eta eremu geografikoen artean ezberdintasun nabarmenak aurkitu daitezke. Testuinguru horretan, aspektu dibergente horiek mahaiaren gainean jarri eta ezberdintasun horien zergatiak eta argudioak eztabaidara ekartzea aberasgarria suerta dakiguke. Krisi ekonomiko orok utzi ohi du analisi eta azterketarako tarte. Horrela, lurralde batek zaugarritasun handiagoa izatea eragiten duten faktoreak zeintzuk diren aztertzea interes handikoa da. Era berean, eskualdeen erreakzio gaitasun handiagoa eta portaera dinamikoagoa azaldu dezaketen faktoreak eta aspektuak identifikatzea ere bai.

Lan honetan, EAEko eskualdeak izango dira arreta gune. Izan ere, eskualdea lurralde-unitate egokia izan daiteke, egoera sozial eta ekonomikoa aztertzeko eta baita lurraldeen artean behatu daitezkeen ezberdintasunak atzemateko ere. Modu berean, eskualde bakoitzaren garapen sozioekonomikoan tokiko erakunde eta agenteek izandako garrantzia eta papera identifikatzea ahalbidetu dezake (Murua eta Ferrero, 2015).

Jarraian datozen azpiataletan, lanaren helburuak eta erabilitako metodologia azaltzen dira. 3 puntuak marko teorikoa biltzen du. 4 puntuan, EAEko eskualdeentzat analisi deskriptiboa burutuko da. 5 puntuak enpleguaren portaera azaltzeko eredu ekonometriko bat aurkezten du. Azkenik, 6 puntuan lanaren ondorioak biltzen dira.

2.2 Lanaren helburuak

Arestian aipatu da krisiaren ondorio nagusienetariko bat enpleguaren galera izan dela. Urte batzuk geroago, eskualde gutxi batzuk baino ez dute krisi aurreko enplegu maila berreskuratu. Testuinguru honetan, eskualde bakoitzaren langabezia-tasa enpleguaren eta ekonomia portaeraren osasun adierazle egokia izan daiteke. 2017ko lehen hiruhileko datuak eskuartean, EAEko batez besteko langabezia-tasa %11,80koa da (Informe laboral Euskadi, 2017). Ordea, eskualdeen arteko aldeak nabariak dira, Goierri eskualdea EAEko batezbestekotik oso behera dagoen bitartean, Enkartzioak eskualdea oso goian dagoelarik, adibidez. Diferentzia hauek, erresilientzia eta zaugarritasun gradu ezberdinak zein faktorek azaldu ditzaketen galdetzeraz eraman gaitzakete.

Datueta oinarrituz, erraza izan daiteke leku ezberdinen arteko diferentziak adieraztea; alabaina, euren dinamismo eta zaugarritasunean eragin dezaketen faktoreei buruz ikerketa sakona burutzeak badu interesa. Barne zein kanpo jatorria duten shock edo krisi egoeren aurrean, eremu geografiko batzuk zaugarritasun handiagoa eta dinamikotasun gutxiago agertzen duten heinean, beste batzuk berezko erresistentzia eta dinamismoa daukate. Zentzu honetan, **kontua ez da zein eskualde den lehiakorra identifikatzea soilik, zergatik den eta zein faktorek eraginda baizik**. Honela, eskualde mailan aplikatu daitezkeen politika ekonomiko aproposak zeintzuk diren identifikatu daiteke.

Eskualde bakoitzaren ezaugarriak eta aurreiritziak kontuan izanik, eskualdearen egoera ekonomikoaren inguruko hipotesiak aurkeztu eta ondorioak atera daitezke. Alabaina, uste horiek datu sozioekonomiko zein makroekonomikoetan eta analisisian islatzen diren frogatzea ezinbestekoa da; hots, portaera eta erantzun ezberdinen alde eta kontrako faktoreak behatzea funtsezkoa da. Datu eta zenbaki soil baten atzean zer ezkututzen den jakitea garrantzitsua da, etorkizunerako zubiak eraikitzen lagundu dezakeen neurrian. Hitz gutxitan esanda, **lan honen bitartez eskualde bakoitzaren egoera sozial eta ekonomikoa sakontasunean aztertuko da, tokian tokiko benetako errealitatea ezagutu asmoz, eta eskualde bakoitza zerk egiten duen berezi eta zerk berezi aztertuko da**.

Sarritan, eredu agregatuek tokian tokiko errealitate ezberdinak ezkututzen dituzte, erregio edo eskualde bakoitzak izan ditzakeen ezaugarriak (geografikoak nagusiki baina baita ezaugarri ekonomiko, sozial eta instituzionalak ere) bereiztu gabe. Hau da, planteamendu orokorragoetan ez da tokian tokiko bilakaera eta eskualde barneko faktoreei soilik lotuak dauden portaeren eragina barneratzen. Erruz, shock egoera batekiko erreakzioa modu batekoa edo bestekoa izan

den azaltzeko baliagarriak izan daitezkeen aldagai edo faktoreak analisi horretatik at geratu daitezke. Hala, tokian tokiko portaera hauen azalpena, lurralde esparru handiagoetan jazotzen dena zehaztasun handiagoz ulertzeko tresna gisa ere ikusi daiteke.

Esan gabe doa, lan honen bitartez bestelako helburuak ere erdietsi nahi direla. Besteak beste, analisiak eskatzen duen bilaketa lantzea, hainbat testuren artean aukeraketa egoki eta ahalik eta aproposena egiteko gai izatea, grafiko esanguratsuak aurkitu eta bertatik ondorioak ateratzeko gaitasuna garatzea, taula eta datu estatistikoak interpretatzea, ekonometria erabiliz errealitatean ematen diren jarrera eta portaerak identifikatzeko gai izatea, etab.

2.3 Erabilitako metodologia

Sarreran zehaztu den gisan, lan honetan eskualdea izango da ikerketa-eremu nagusia. Testuinguru honetan, kontuan izan behar da lurraldearen nozioak ez dituela soilik lurralde horren ezaugarri fisikoek adierazten, beste hainbat dimentsio kontuan hartzea beharrezko egiten duelarik; hala nola, dimentsio ekonomikoa, soziala, ingurumenekoa eta antolakuntza-gaitasunari dagokiona. Ondorioz, lurralde bat ez da soilik inguratzen gaituen espazioa, hainbat dimentsiok eragiten duten esparru konplexu bat baizik. Ildo horretan, eskualdea aurreko definizioan barnera daitezkeen lurralde-unitatea da, tokiko garapen horretan eragina izan dezaketen agente sozial, ekonomiko eta politikoei osatzen duten markoa den heinean (Murua eta Ferrero, 2015).

Ordea, informazio estatistiko zein administratiboa burutzen duten erakunde ezberdinek, eskualde edo udal mailan baino gehiago, probintzia eta erkidego mailan egin ohi dute azterketa eta analisi estatistikoa (Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, 2014). Halaber, datuak desagregatzen direnean, iturri estatistiko ezberdinek eskualdeen sailkapen ezberdina erabiltzen dute, neurri batean, azterketa zailduz (ikus Eranskina, 8.1 puntua). Iturri estatistiko nagusienak kontuan hartzen baditugu, EUSTAT Euskal Estatistika Erakundeak egiten duen sailkapenean, EAE 20 eskualde ezberdinetan banatua ageri da. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, bestalde, 11 eskualdetara mugatzen du bere sailkapena, aurreko sailkapenarekin alderatuz hainbat eskualde batera agertzen direlarik.¹ Lan honetan, EUSTAT erakundeak egindako sailkapena lehenetsi da, eskualdeen analisi desagregatuago eta zehatzagoa egitea ahalbidetzen duen neurrian.

EAEko eskualdeen artean dagoen dibertsitate ekonomikoa ilustratzeko asmotan, analisirako hautatu diren aldagaiak multzo ezberdinetan sailkatu dira: demografia, ekonomia egitura, enpresa egituraketa, lan-merkatua, ikerketa eta garapena, ekonomia dinamismoa eta garapen agentziak. Multzo bakoitzerako aldagaien aukeraketa azken hauen erabilgarritasun eta eguneratzean oinarritu da, iturri estatistiko ezberdinak sakontasunean aztertu ondoren. Eranskinean bildu dira lan honetan erabilitako aldagai eta adierazle guztiak, iturri estatistikoa eta eskuragarri dagoen azken urtea adieraziz (ikus 8.3 puntua).

¹Hala ere, zenbait aldagaietarako, bigarren desagregazio bat burutzen du, EUSTATEko eskualde-sailkapenera hurbiltzea ahalbidetzen duelarik. Kasu batzuetan, ikerketa honetan ere erabiliko dira datuok.

5 puntuak, EAEko eskualdeentzat analisi ekonometriko bat burutuko da. Erabilitako datuak eta metodologia puntu horretan bertan azalduko dira.

Arestian aipatu dugun moduan, lan honen helburuetako bat eskualdearen egungo egoeraren berri ematea da, ikuspuntu sozial, ekonomiko, demografiko eta instituzionala kontuan hartuta. Alabaina, planteamendu orokor horrek hainbat muga aurkezten ditu, lan honetatik eratorritako ondorioak interpretatzerako garaian kontuan izan beharrekoak:

- Aldagaien aukeraketa. Azpimarratu da aldagaien aukeraketa azken batean aldagaien erabilgarritasun eta eguneratzean oinarritu dela. Analisisirako aldagaiak eskualde mailan eskuragarri egon beharrak, ikerketarako interesgarri gerta zitezkeen zenbait aldagai kontuan hartu ez izana eragin du. Besteak beste, Barne Produktu Gordina eta hortik eratorritako beste zenbait aldagai analisisian ez barneratzea erabaki da, eskualdeko azken datuak 2012 urtekoak izanik, egungo egoeraren isla baino, iraganeko egoeraren isla zirela ondorioztatu delako. Honela, lan honetan erabilitako aldagaiak azken bi urteetan oinarrituak izan dira (2015 eta 2016), zenbait kasutan 2014 eta 2012ko datuak erabili badira ere. Bestetik, hautatutako aldagaiak ugariak eta alor ezberdinei dagozkienak izan arren, kontuan izan behar da analisisirako interesgarri eta esanguratsuenen alde egin dela, besteak beste, gizabanakoen ongizateari dagozkion aldagai asko analisi honetatik at geratu direlarik. Zentzu honetan, eskualdearen ingurumen egoerari, kontsumo ohiturei, etxebizitzaren bilakaera eta prezioari, mugikortasunari eta familia-kontziliazioari lotutako aldagaiak beste ikerketa-lerro baterako utzi dira.
- Eskualdeen sailkapena. Tokian tokiko errealitate ezberdinak ezagutu asmoz, EAE 20 eskualdetan banatu eta analisisia desagregazio-maila horretan egitea erabaki da, eskualde barnean ere ezberdintasunak egon badaudela jakitun. Adibidez, Errioxa Arabarra bere osotasunean edo eskualde horretako herri garrantzitsuenetariko bat den Oion bakarrik aztertuko bagenu, ez ginateke ondorio berdinetara iritsiko. Halaber, Gipuzkoako hainbat herri txikitako BPG per capita kontuan hartuko bagenu, ezberdintasun nabariak ikusiko genituzke eskualde barnean ere (Goierrri eta Olaberriaren kasua, esaterako). Lan honetatik abiatuta, beste ikerketa-lerro interesgarri bat izan liteke eskualde barneko edo herri mailako analisisia burutzea.
- Metodologia ezberdinak. Iturri estatistiko bakoitzak, aldagaiak kalkulatzeko metodologia propioa izan ohi du. Testuinguru honetan, aldagai berdina baterako, datu edo emaitza ezberdinekin topo egin da kasu askotan, lan-merkatuko datuak aztertzerako garaian, esaterako. Egoera honen aurrean, datu bakoitza sakontasunean aztertu eta metodologia egokiena lehenetsi da, lanean garbi adieraziko delarik zein den metodologia hori.


3 Literaturaren errepassoa: erresilientzia

Ekonomialari gutxik aurreikusi zuten 2008ko krisialdia. Gerora krisi finantzario eta ekonomikoa deitua izan dena, kanpotik etorritako shock edo perturbazio gisa ulertu daiteke erregio-ekonomiaren esparruan. Planifikatu eta aurreikusi ezin daitezkeen shock hauek, ekonomiaren norabidea guztiz aldatu dezakete, gizarte-ohitura eta jardueretan eragina izatearekin batera. Testuinguru honetan, shock hauetara prestatuta egoteak, erresilientzia estrategia zabalak garatuta izatea eskatzen du (Norris et al., 2008).

Erresilientzia kontzeptua fisikan, ekologian eta psikologian ezaguna da. Harluxet Hiztegi Entziklopedikoak, «metalek talkak jasateko duten erresistentzia» moduan definitzen du. Hain zuzen, hori da kontzeptu honen lehen adiera, fisikaren esparruan erabilia. Beranduago, ekologian erabiltzen hasi zen. Ekologoentzat, ekosistema ezberdinek perturbazio bat gainditzeko duten gaitasunari erantzuten dio erresilientziak (Holling, 1973). Psikologia munduan, bestalde, pertsona batek edo pertsona talde batek emozioei eragin dien minetik errekuperatzeko duen gaitasunari egiten dio erreferentzia. Berrikiago hasi dira soziologo, geografo eta ekonomialariak kontzeptua erabiltzen, eta eredu/eremu sozioekonomiko ezberdinek shock egoeren aurrean (normalean, krisi ekonomikoak) erantzuteko duten gaitasun edo ahalmenari egingo lioke aipua. Diziplina edozein izanik ere, guztiek erresilientzia maila ezberdinak zein faktorek azaldu ditzaketen aztertu nahi dute, izan pertsonen (psikologia), animalia eta naturaren (ekologia), materialen (fisika) edo egitura sozioekonomikoen (ekonomia, soziologia eta geografia) kasurako (Rosell et al., 2011).

Ekonomiaren esparruan, kontzeptuaren inguruko eztabaida areagotu egin da azken urteotan eta zabala da honen inguruko literatura (esaterako, Briguglio et al., 2009; Hassink, 2010; Bristow, 2010; Scott, 2013). Beste diziplina batzuetatik eratorritako kontzeptua izaki, autore ezberdinen artean ez dago adostasun osorik erresilientziaren adiera teorikoaren inguruan. Hala, «erregio batek kanpo-istilu bati aurreratzeko, aurreikusteko, erantzuteko eta aurre egiteko gaitasun» moduan definitu zen erregio-erresilientzia hasieran (Foster, 2007). Gero, shock bati erantzunez, shock aurreko hazkunde-tasa bera edo handiagoa lortzeko gaitasun bezala definitua izan zen (Hill et al., 2008). Edo beste behin, «lurralde edo espazio batek aldaketa azkar, berehalako eta ustekabeko baten aurrean erreakzionatzeko eta egokitzeko dituen gaitasun ezberdin» gisa (Pike et al., 2010).


Aurreko hausnarketa eta haritik tiraka, gaiari lotutako funtsezko hainbat kontzeptu definitu beharra ikusi zen. Honela, lehenik, shock edo perturbazioak hazkunde mailari eragin dion aztertzea ezinbestekoa da. Aldaketak ez badu inolako eraginik izan hazkundearengan, “shock-iraunkor” testuinguruan geundeke. Eskualdea shockaren eragin negatiboa jasatera heldu bada, “erresiliente” moduan kontsideratu ahal izango da hazkunde-maila epe laburrean berreskuratzen badu. Hala ez denean, “ez-erresiliente” gisa izendatuko da (Hill et al., 2012). Beste zenbait autorek, ideia bera barneratu dute euren ereduetan (ikus eranskina, 8.4 puntua).



Irudia 1: Erresilientzia kontzeptuak. Iturria: Hill et al., 2012

Berehala garatu zen shock ezberdinen aurrean erresilientzia aztertzeke baliagarria den eboluzio-eredua (ikus Simmie eta Martin, 2010), ondoren publikatu diren hainbat artikulua akademikotan egokitu eta erabili dena (adibidez, Courvisanos, 2016). Kontzeptu konplexua den neurrian, lau dimentsio edo aspektu kontuan hartu behar direla argudiatzen du Ron Martin autoreak (Martin, 2012): erresistentzia (shock edo perturbazioarekiko zaurgarritasun edo sentikortasun maila), susperraldia (aurkako egoera horri aurre egiteko abiadura, erreperazio-denbora), berrorientazioa (perturbazioaren ondorioz emandako aldatetara egokitzeko erraztasuna, enplegu, errenta eta produkzio-moduei dagokionean) eta berritzea (shock aurreko hazkunde mailara iristeko gaitasuna). Era berean, Martinek bere buruari egiten dion galdera da zerk eragiten duen eskualdetik eskualdera edo hiritik hirira erresilientzia maila ezberdinak ikustea. Ekonomiaren alor eta esparru ezberdinak kontuan hartzea dakar horrek eta hainbat faktoreen konbinazio konplexu moduan ikusi behar da; batzuk izaera orokorreko faktoreak izango dira, besteak tokiko faktore edo berezitasunak izango diren bitartean. Hala, zenbait faktore erabakigarri sailkatu zituen, 4 azpiatal nagusitan banatuta: enpresa- eta industria-egitura, lan-merkatua, finantza-sistema eta gobernantza (ikus 2 irudia).

Faktore horietatik tiraka, eta lan honetan eztabaidatuko diren aspektuak kontuan izanik, interesgarria gerta dakiguke horietako batzuen inguruko literaturaren errepasoa egitea. Industriaren esparruan, hazkunde ekonomikoa sustatzerako garaian, espezializazioa vs dibertsifikazioa eztabaida ez da berria (Harrison et al., 1996). Autore batzuek, industria edo jarduera nagusi bakar batean espezializatua dagoen eskualdeak erresilientzia maila baxua izango duela argudiatzen dute (Ormerod, 2010). Beste zenbait ekonomialari geografok, industria espezializazioa eskualdearen hazkunde ekonomikoen motor nagusienetako bat dela argudiatzen dute (Storper, 2013). Ordea, eskualde bateko hazkunde ekonomikoko egonkor eta oparoa bertako ekonomia egituraren dibertsitate eta konplexutasunean oinarritzen dela aldarrikatu dute beste batzuek (Hausmann et al., 2014).



Irudia 2: Erresilientzia faktore erabakigarriak. Iturria: MARTIN eta SUNLEY (2014)

Zerbitzuen sektoreak erresilientzian joka dezakeen papera ere aztertu da. Espainiako 17 autonomia erkidego aztertu ziren 1992 eta 2008ko krisi ekonomikoen testuinguruan, eta zerbitzu sektorean intentsiboak ziren erkidegoek erresilientzia maila handiagoa erakusten zutela ondorioztatu zen (Navarro-Espigares et al., 2012). Beste ikerketa-lerro batzuk, giza kapitalaren garrantziaren bidean burutu dira, hazkunde ekonomikoari positiboki eragin diezaiokeen aztertzeko helburuarekin (Gottlieb et al., 2003). Era berean, bistakoa da kapital soziala eta tokiko instituzioen arteko lankidetzak aktiboki garatua daukaten hiri eta eskualdeetan, errazagoa izango dela erresilientzia estrategiak aurrera eramatea (Mendez et al., 2015). Halaber, eskualde batean instituzioen eta industrien artean harremanak bertikalak ez ezik horizontalak ere badirenean, erresilientzia maila altuagoa izango da² (Berkes, 2002).

Kontzeptuaren inguruko adiera teorikoak ez ezik, erresilientziaren aplikazio praktikoak ere sortu du eztabaida. Zehazki, berau kuantifikatu eta aztertzeko aldagai egokienak zeintzuk ote diren da galdera nagusia. Testuinguru honetan, gaiaren inguruko azken urteetako lanak bi esparru edo ikuspuntutan oinarritu dira. Batetik, lan-merkatuari eta langabezia-tasari dagozkionak (Davies, 2011; Lee, 2014). Bestetik, jarduera ekonomikoari eta Barne Produktu Gordinari dagozkionak (Cellini eta Torrisi, 2014; Abiad et al., 2015).

² Azken ideia honek, EAEko eskualdeetan Garapen Agentziek jokatzeko duten rolaekin bat egin dezake. Lanaren hurrengo atalean landuko da Garapen Agentzien papera.

4 EAEko eskualdeak: dibertsitate ekonomikoa

Arestian aipatu da EAEk beste eskualde eta erkidego batzuekin alderatuta krisiaren aurrean erakutsi duen portaera sendoagoa izan dela, arrazoi ezberdinak medio. Hala nola, industria sektoreak ekonomia-jardueran duen pisua, enpresek krisi aurretik zuten finantza egoera sendoagoa, eraikuntza sektorearen pisu apalagoa, eta Ikerketa eta Garapena bezalako alorretan inbertitzeko apustu irmoa nabarmendu daitezke, beste faktore batzuen artean. Alabaina, euskal ekonomiaren muinetara sartuta, eskualdeen artean alde garrantzitsuak atzeman daitezke. Zentzu honetan, eskualde bakoitza espezializatzen den jarduera industrialak zein den aztertzea garrantzitsua da, funtsean industria jarduerak eta berari aurrera eramateko teknologia-mailak baldintzatuko dutelako azken emaitza (Orkestra, 2015). Testuinguru berean, lan-merkatuari dagozkion zenbait aspektu, eskualde horren ekonomia portaeraren adierazle izan daitezke eta tokiko instituzioek bertako enpresa eta zentro ezberdinekin dituzten lotura-harremanek, eskualdeko ekonomia-norabidea muga dezakete.

Eranskinean bildu da EAEko eskualdeen mapa eta baita bakoitza osatzen duten udalerrien zerrenda ere (ikus 8.2 puntua). Orotara, 20 eskualde bereizten dira: Araban 6, Bizkaian 7 eta Gipuzkoan ere, beste horrenbeste, 7. Ondorengoak:

- Araba: Arabako Ibarak, Arabako Lautada, Arabako Mendialdea, Errioxa Arabarra, Gorbeia Inguruak eta Kantauri Arabarra.
- Bizkaia: Arratia-Nerbioi, Bilbo Handia, Durangaldea, Enkartzioak, Gernika-Bermeo, Markina-Ondarroa eta Plentzia-Mungia.
- Gipuzkoa: Bidasoa Beherea, Deba Beherea, Deba Garaia, Donostialdea, Goierri, Tolosa eta Urola Kosta.

Eskualdeen ingurune makroekonomikoa ia berdina den arren, beraien kokapena, espezializazioa, egitura eta izaera produktiboa, enpresa-taldeen existentzia eta enpresen teknologia-maila ezberdinak izan daitezke, besteak beste. Halaber, kapital soziala, giza kapitala, eta lidergo eta gobernantza eredu eraginkorra lortzen laguntzen duten inguru instituzionalek ere aldeak izaten dituzte (Murua eta Ferrero, 2015). Horregatik, eredu ekonometrikoarekin sartu aurretik, ezinbestekoa da eskualdeen egungo egoeraren argazki bat eskaintzea, tokian tokiko benetako errealitatea ezagutzeko helburuarekin.

Ondorengo atalean, EAEko eskualdeen artean dagoen dibertsitate sozial eta ekonomikoa ilustratzeko asmotan, analisirako hautatu diren aldagaiak multzo ezberdinetan sailkatu dira: demografia, ekonomia-egitura, enpresa egituraketa, lan-merkatua, ikerketa eta garapena, ekonomia dinamismoa eta garapen agentziak.

4.1 Demografia

Ekonomia ulertzerako garaian, ahaztu ezin daitekeen aspektua da demografiarena; hots, giza populazioaren egoerari buruzko azterketa koantitatiboari erreparatzearena. Sarritan, autoaren mugikortasunak erlazioa zertxobait eraldatu badu ere, eremu geografiko bateko egoera sozioekonomikoa populazioaren dinamikari lotua ageri da. Zentzu honetan, demografiaren esparruko hainbat ezaugarrik, etorkizun hurbileko ekonomiari eragin diezaiokete (eta alderantziz).

Lehen taulak (Taula 1), hiru aldagai aurkezten ditu. Batetik, azken hamarkadari dagokion populazioaren aldakuntza. Bestetik, eskualde horretako populazio osoa kontuan hartuta, biztanleria atzerritarra zer ehunekori erantzuten dion, eta azkenik, lan egiteko adinean dagoen populazioaren ehunekoa, hau da, 20-64 urte arteko populazioaren portzentajea.

	2006-2016	2016	20-64 urte arteko populazioaren %		
	Populazioaren aldakuntza (%)	Biztanleria atzerritarra (%)	2008	2012	2016
Arabako Ibarrak	6,59	6,04	63,69	62,83	61,96
Arabako Lautada	8,19	8,43	66,64	64,26	61,22
Arabako Mendialdea	-6,28	3,96	61,54	59,74	58,54
Errioxa Arabarra	3,28	9,81	62,39	60,76	59,66
Gorbeia Inguruak	11,20	4,31	64,72	63,92	62,06
Kantauri Arabarra	3,80	4,56	65,39	63,26	60,33
ARABA	7,35	7,88	66,19	63,95	61,08
Arratia Nerbioi	7,30	5,10	64,04	63,29	60,80
Bilbo Handia	-1,01	5,74	64,40	62,60	60,55
Durangaldea	5,19	6,41	65,66	63,38	61,08
Enkartzioak	5,81	5,52	64,20	63,31	61,38
Gernika-Bermeo	2,37	6,73	63,21	61,59	59,44
Markina-Ondarroa	-0,67	6,43	62,98	61,32	59,64
Plentzia-Mungia	14,68	4,45	66,65	64,86	62,66
BIZKAIA	0,67	5,77	64,51	62,74	60,66
Bidasoa Beherea	2,91	7,86	64,91	62,27	59,98
Deba Beherea	3,03	7,30	62,92	60,87	58,47
Deba Garaia	1,65	5,39	64,22	61,32	58,81
Donostialdea	2,82	6,25	64,19	61,93	59,93
Goierrri	5,02	8,15	63,03	60,57	58,56
Tolosa	6,52	6,43	63,57	61,31	58,97
Urola Kosta	8,30	6,27	63,96	61,80	59,78
GIPUZKOA	3,74	6,62	64,00	61,65	59,51
EAE	2,61	6,36	64,59	62,56	60,35

Iturria: Eustat. Udalmap

Azken hamarkadan (2006-2016), EAeko biztanleriaren aldakuntza %2,6 ingurukoa izan da, aldakuntzarik handiena Araban eman delarik (%7,35). Lurralde historikoen arteko ezberdintasunak aipagarriak izateaz gain, eskualde mailan ere aldeak nabariak dira. Araban, esaterako, Gorbeia Inguruak eskualdeak populazioaren aldakuntza positiboa eta azpimarragarria izan duen bitartean (%11,20), Arabako Mendialdean populazioaren bilakaera oso ezberdina izan da (%-6,28). Aldagai honi dagokionean, eskualde dinamikoenak ikuspuntu ekonomiko eta demografikotik beti bat ez datozela azpimarratu nahi da.

Interesgarriagoa gerta dakiguke biztanleria atzeritarraren ehunekoari erreparatzea. Ikerketa larro ezberdinak burutu dira esparru honetan, atzeritarren etorrerak izan ditzakeen eragin ekonomikoak zenbatu eta identifikatu nahian. Esaterako, zenbait autorek biztanleria atzeritarrak pentsio-sistema publikoaren bideragarritasun eta jasangarritasunean izan dezakeen eraginak aztertzen jardun dute (Serrano et al., 2008). Beste zenbaitzuk, hazkunde ereduarengan izan dezakeen eraginean jarri dute arreta (Arriola et al., 2008).

Biztanleria atzeritarraren ehunekoari dagokionean, EAeko batezbestekoa %6,36koa da, beste erkidego batzuekin alderatuta ehunekoa txikiagoa delarik, biztanleria atzeritarraren etorrera berantiaragoa izan delako EAEn, besteak beste (Eguía et al., 2013). Araban, batezbesteko horretatik gora aurkitzen dira bi eskualde: Arabako Lautada (%8,43) eta Errioxa Arabarra (%9,81). Lehenak, Arabako hiriburua den Gasteiz barnebiltzen du eta hori da hain zuzen ere batezbestekotik gora egoteko arrazoi nagusienetariko bat, hiriburuetan kontzentratzen baita biztanleria atzeritarraren portzentaje handi bat. Errioxa Arabarrari dagokionean, nekazaritza eta ardoaren sektoreak erakartzen ditu atzeritarrak, ehuneko zabal bat Marokoar jatorrikoa delarik. Bizkaian, Gernika-Bermeo (%6,73) eta Markina-Ondarroa (%6,43) eskualdeak nabarmentzen dira, batezbestekotik zertxobait gorago agertzen diren heinean. Eskualde hauetan, arrantzak eta itsasoak jokatzen duten papera ezaguna da, eta egun, atzeritar ugari dabil itsasoko lanetan murgilduta. Aipagarria da Gernika-Bermeo eskualdean atzeritarren ehuneko handi bat Errumaniar jatorrikoa dela. Gipuzkoan, hainbat eskualde daude batezbesteko horretatik gora. Nagusiki, Goierri (%8,15), Deba Garaia (%7,30) eta Bidasoa Beherea (%7,86) azpimarratu daitezke. Lehen bietan, ekonomiaren egoera oparoa izan daiteke arrazioetariko bat, eta Bidasoa Behereari dagokionean, Ipar Euskal Herriarekin (administratiboki, Frantziarekin) egiten du muga, eremu geografiko erakargarri bilakatuz.³

20-64 urte arteko populazioaren ehunekoaren bilakaerari erreparatuz, bistakoa da zahartze demografikoaren arazoa presente dagoela EAeko eskualde guztietan, salbuespenik gabe. Alboan laga behar ez den arazo baten aurrean gaude, etorkizun hurbileko ekonomia baldintzatu dezakeen neurrian. Gainera, beste erkidego batzuekin alderatuta, EAeko populazioa are zaharragoa da, beharrezko egiten duen arazo konpontzeko neurri ezberdinak diseinatzen hastea (Informe Laboral Euskadi, 2017).

³Burututako analisisa bat etorriko litzateke Immigrazioaren Euskal Behatokiak aurrera eramandako analisiarekin (Ikuspegi, 2016).

Testuinguru honetan, eta aurreko ideiarekin lotuz, biztanleria atzerritarren baitan egon daiteke gakoetako bat, beharrezkoa delarik hauen lan-merkaturatze zein gizarteratzean aurrerapausuak ematea.

Azkenik, demografiaren esparruan, populazio datuetan oinarrituz, eskualde bakoitzaren pisua zein den aztertzea funtsezkoa da (ikus Eranskina, 8.5.1 puntua). Analisi honetan, hiru eskualde nabarmentzen dira beste guztien gainetik. Zehazki, probintzietako hiriburuak barnebiltzen dituzten eskualdeak dira: Bilbo Handia, Donostialdea eta Arabako Lautada. Hiru hauen artean, EAeko populazio osoaren %64 biltzen dute. Jarraian, beste 9 eskualde leudeke, euren pisua %2 eta %5 tartean legokeelarik. Azkenik, populazioaren %2aren azpitik suposatuko lukete beste 8 eskualdek, tartean Arabako gehienak. Testuinguru honetan, Gipuzkoako eskualdeen eta Bizkaiko eta Arabako eskualdeen artean ezberdintasun nagusi bat ikusi daiteke. Gipuzkoan, eskualdeen pisuari dagokionean, banaketa orekatuagoa dela esan liteke, hau da, ez dago euren artean diferentzia handirik, honek dinamika propioa garatzeko aukera ematen dielarik. Ordea, Araban eta Bizkaian polarizazioa nabarmena da, batez ere hiriburua barneratzen duen eskualdearen eta gainontzekoen artean (Uranga et al., 2007). Populazioaren ordez, BPG aldagaia kontuan hartuko bagenu⁴, sailkapena ez litzateke hainbeste aldatuko.⁵

4.2 Ekonomia-egitura

Arestian aipatu da eskualde bakoitza espezializatzen den jarduera ekonomikoa zein den aztertzea garrantzitsua dela. Hala, sektore ekonomiko bakoitzak eskualdean daukan pisua behatzea interesgarria gerta dakiguke. Ondorengo taulak (Taula 2), tokian tokiko ekonomia-egituraren adierazgarri izan daitezkeen bi aldagai aurkezten ditu. Batetik, okupatutako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren ehunekoa; bestetik, sektorearen Balio Erantsi Gordina. Horretarako, hiru multzotan sailkatu dira sektore ekonomikoak. Euskal ekonomian pisu ekonomiko handiena duten bi sektore produktiboak industria eta zerbitzuak direla jakitun, nekazaritza, arrantza eta eraikuntza sektoreak multzo berean sartu dira.

Izan ere, orotara EAEn %7 ingurukoa da azken hauen pisua, bai okupatutako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren ehunekoari dagokionean eta baita Balio Erantsi Gordinari dagokionean ere.⁶ Hala ere, batezbesteko horretatik nabarmen gora dauden eskualdeak badaude, nagusiki, Araban. Testuinguru honetan, okupatutako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren ehunekoari dagokionean, azpimarragarriak dira Errioxa Arabarra (%26,22), Arabako Mendialdea (%19,46) eta Arabako Ibarak (%17,70) eskualdeak, bertan nekazaritzaren eta ardoaren sektorearen pisua handia dela berretsiz.

⁴Eskuragarri dagoen BPGaren azken datua 2012 urtekoa denez, soilik populazioari dagozkion datuak aurkeztea erabaki da.

⁵Ikus Indicadores y análisis de competitividad local en el País Vasco, 50. orrialdea. (Navarro et al., 2007)

⁶Honek berretsi egiten du arestian aipatu den adreiluarekiko ez hain dependentzia handiaren arazoiketa, neurri batean, krisiaren aurrean EAEn portaera sendoagoa ahalbidetuz.

Taula 2. EKONOMIA-EGITURA						
	2015			2012		
	Okupaturako 16 urte edo gehiagoko biztanleria (%)			Sektorearen Balio Erantsi Gordina (%)		
	Nekazaritza, arrantza eta eraikuntza	Industria	Zerbitzuak	Nekazaritza, arrantza eta eraikuntza	Industria	Zerbitzuak
Arabako Ibarrek	17,70	25,30	57,00	9,20	51,40	39,40
Arabako Lautada	5,91	21,66	72,42	7,30	25,70	67,00
Arabako Mendialdea	19,46	24,60	55,93	15,10	22,70	62,20
Errioxa Arabarra	26,22	24,66	49,11	9,50	57,30	33,20
Gorbeia Inguruak	9,48	23,49	67,02	6,50	50,80	42,60
Kantauri Arabarra	8,02	29,82	62,16	5,10	46,70	48,20
ARABA	7,24	22,75	69,99	7,30	31,30	61,40
Arratia Nerbioi	8,36	25,79	65,85	9,00	41,30	49,60
Bilbo Handia	7,04	13,07	79,89	7,20	15,10	77,70
Durangaldea	5,92	32,12	61,95	7,70	38,90	53,30
Enkartzioak	11,84	16,08	72,08	13,60	20,00	66,40
Gernika-Bermeo	9,88	19,80	70,31	21,10	17,70	61,20
Markina-Ondarroa	10,40	30,25	59,34	10,00	34,50	55,50
Plentzia-Mungia	7,28	15,11	77,60	13,10	26,70	60,20
BIZKAIA	7,29	15,91	76,78	8,10	19,10	72,80
Bidasoa Beherea	7,54	14,56	77,90	11,90	15,80	72,30
Deba Beherea	5,90	34,16	59,93	6,60	38,90	54,50
Deba Garaia	4,31	41,56	54,12	4,20	48,50	47,20
Donostialdea	6,65	14,85	78,50	6,70	16,60	76,70
Goierrri	6,98	36,98	56,03	7,80	52,50	39,60
Tolosa	8,35	29,70	61,94	9,60	41,20	49,20
Urola Kosta	8,42	28,98	62,60	10,30	35,00	54,70
GIPUZKOA	6,80	23,24	69,94	7,60	28,60	63,80
EAE	7,12	19,40	73,46	7,80	24,20	68,00

Iturria: Eustat.Udalmap.

Okupaturako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren ehunekoarekin jarraituz, industria sektorean joera ezberdinak nabari dira probintzien artean. Araban, eskualdeen arteko diferentziak oso txikiak dira, Bizkaia eta Gipuzkoa askoz heterogeneoagoak diren neurrian.⁷ EAeko batezbestekoa, %20ra ez da iristen, eta zenbait eskualde daude zenbateko horretatik gora. Bizkaian, bi eskualde nabarmentzen dira: Durangaldea (%32,12) eta Markina-Ondarroa (%30,25). Gipuzkoan, aldiz, Deba Garaia (%41,56) eta Goierri (%36,98). Historikoki eskualde industrialak izan dira hauek, eta eskualdeen dinamikotasuna azaldu dezakete neurri batean. Balio Erantsi Gordinari erreparaturaz, analisia ez da aldatzen, azpimarragarriak direlarik Deba Garaiak (%48,50) eta Goierrik (%52,60) aurkezten dituzten balioak.

⁷ Arabako eskualdeen portaera ezberdina izan daitekeenaren lehen zantzuak dira.

Azkenik, zerbitzuen alorrean, hiriburua barne duten eskualdeak dira nagusi probintzia bakoitzean. Populazioaren analisia egiterako garaian, aipatu da hiriburuetan kontzentratzen dela batez ere jende gehiena eta bat etorriko litzateke zerbitzuak hiriburuetan garatzen diren ideiarekin. Honela, okupatutako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren ehunekoari dagokionean, Arabako Lautadan %72,42ko pisua du, Bilbo Handian %79,89koa, eta Donostialdean %78,50ekoa. Era berean, nabarmentzekoa da Bidasoa Beherea eskualdean ere %77,90ekoa dela zerbitzuak sektorearen pisua. Azken honek, hein batean, Gipuzkoako hiriburu den Donostiatik eskualde honetara dagoen gertutasunari erantzun diezaioke. Halaber, eskualde horretako herri garrantzitsuenetarikoa den Irun, mugako aduana-herri birmoldatua dela ezin ahaztu. Balio Erantsi Gordinari dagokionean ere, balio handiena hartzen duten eskualdeak Bilbo Handia (%77,70), Donostialdea (%76,70), Bidasoa Beherea (%72,30) eta Arabako Lautada (%67) dira.

Industria eta zerbitzuak sektoreetan oinarrituz, Bizkaian eta Gipuzkoan joera bera mantentzen da: industrian pisu handiena duten eskualdeak, zerbitzuak sektorean pisu txikiena daukate (begiratu Bizkaian Durangaldea eta Markina-Ondarroa, eta Gipuzkoan Deba Garaia eta Goierri). Aldiz, Araban ez da joera hori mantentzen, nekazaritza, arrantza eta eraikuntza sektoreen pisua esanguratsua goa delarik ekonomia-egituraren analisian.

4.3 Enpresa-egituraketa

Tokian tokiko enplegua sortzerako garaian, enpresek jokatzeko duten papera ez da nolana hikoia. Hori dela eta, eskualde bakoitzari dagokion enpresa-egituraketa aztertzea interesgarria gerta dakiguke. Hurrengo taulak (Taula 3), esparru hori behatzea ahalbidetzen duten lau aldagai esanguratsu biltzen ditu. Lehenik, aurreko sektore-multzoekin jarraituz, multzo bakoitzaren pisua adierazten da establezimendu kopuruari dagokionean. Bigarren aldagaiak, eskualde horretako industria establezimenduetan batez besteko langile kopurua zein den adierazten du. Hirugarrenik, 100 langiletik gorako enpresen ehuneko biltzen da eta azkenik, mikroenpresek (0-9 langile arteko enpresek) sortutako enpleguaren portzentajea.

EAEko establezimendu edo enpresa guztien %78 inguru, zerbitzuen sektoreari dagokio, %15 nekazaritza, arrantza eta eraikuntza sektoreei eta azkenik, ia %7 industria establezimenduei. Hala ere, eskualdeen artean ezberdintasunak agerikoak dira. Lehen sektore eta eraikuntzari erreparaturik, Arabako hiru eskualde nabarmendu daitezke, aurreko ataleko analisiarekin bat eginez: Arabako Ibarrek (%42,29), Arabako Mendialdea (%50,65) eta Errioxa Arabarra (%40,66). Zerbitzuen sektoreari dagokionean, Araban zenbateko handiena Arabako Lautadak (%80,38) dauka eta baxuena, berriz, Errioxa Arabarrak (%36,45). Bizkaian eta Gipuzkoan ez dago hainbesteko polarizaziorik, baina berriro, aurreko analisi batzuekin bat eginez, hiriburuak barne dituzten eskualdeetan eskuratzen da baliorik handiena; hau da, Bilbo Handian (%83,24) eta Donostialdean (%81,20). Gipuzkoaren kasuan, gainera, Bidasoa Beherea eskualdea ere nabarmendu daiteke (%78,15).

Taula 3. ENPRESA-EGITURAKETA						
	2016			2015	2016	2015
	Sektoreko establezimenduak guztiekiko (%)			Industria enpresetan batez besteko langile kopurua	100 langiletik gorako enpresak (%)	Mikroenpresek sortutako enplegua (%)
	Nekazaritza, arrantza eta eraikuntza *	Industria	Zerbitzuak			
Arabako Ibarrek	42,29	10,98	46,73	31,91	0,66	27,65
Arabako Lautada	13,46	6,15	80,38	19,79	0,68	32,33
Arabako Mendialdea	50,65	5,77	43,57	15	0,52	43,74
Errioxa Arabarra	40,66	22,88	36,45	7,04	0,36	47,24
Gorbeia Inguruak	27,20	16,72	56,07	16,18	0,48	33,41
Kantauri Arabarra	21,79	9,48	68,72	26,78	0,80	33,10
ARABA	18,44	8,21	73,35	17,86	0,66	33,17
Arratia Nerbioi	22,67	10,07	67,25	16,44	0,26	40,92
Bilbo Handia	12,08	4,67	83,24	11,27	0,51	36,39
Durangaldea	15,42	12,06	72,51	16,79	0,76	31,19
Enkartzioak	27,15	6,32	66,52	6,79	0,08	55,28
Gernika-Bermeo	21,90	6,44	71,66	13,1	0,41	46,12
Markina-Ondarroa	21,48	9,30	69,21	17,03	0,21	41,21
Plentzia-Mungia	15,72	7,11	77,17	12,7	0,26	48,15
BIZKAIA	13,80	5,71	80,49	12,61	0,49	37,10
Bidasoa Beherea	16,02	5,82	78,15	9,05	0,33	47,29
Deba Beherea	14,08	13,76	72,15	12,19	0,44	38,12
Deba Garaia	16,25	11,29	72,45	28,05	1,13	24,90
Donostialdea	13,14	5,65	81,20	10,03	0,56	38,48
Goierrri	20,76	9,92	69,32	24,89	0,54	33,39
Tolosa	21,05	12,30	66,64	13,07	0,43	41,78
Urola Kosta	19,58	10,92	69,50	12,15	0,42	43,11
GIPUZKOA	15,68	7,92	76,40	13,99	0,54	37,94
EAE	15,10	6,81	78,08	14,05	0,53	36,74

* 2012 geroztik, nekazal ustiapenak ere kontuan hartzen ditu Eustatek, pisua handituz.

Iturria: norberak egina Eustat eta Udalmapeko datuetatik abiatuta.

Enpresa tamainari erreparatzea ere ezinbestekoa da.⁸ Industriak ekonomiaren norabidean eta hazkundean daukan garrantziaren jakitun, industria establezimenduetan dagoen batez besteko langile kopurua sektore honetako enpresen tamainaren adierazgarri izan daiteke. Zenbait kasutan, eskualdearen zaugarritasunaren adierazle izan daiteke industriako enpresen tamaina txikia, Enkartzioak (6,79 langile) eskualdearen kasuan, esaterako. Araban, industria establezimenduen batez besteko langile kopuru handiena Arabako Ibarrek eskualdean (31,91 langile) aurkitzen da; Bizkaian, Markina-Ondarroa (17,03 langile) eta Durangaldea (16,79 langile) nabarmendu daitezke; Gipuzkoan, aldiz, Deba Garaia (28,05 langile) eta Goierrri (24,89).

⁸Enpresa sailkapen metodoak dio langile kopuruaren arabera, enpresa txikiak,ertainak eta handiak bereizten direla. 0 eta 50 langile artekoak, enpresa txikiak izango dira; 50 eta 250 langile artekoak, enpresa ertainak; eta azkenik, 250 langiletik gorakoak, enpresa handiak. Lan honetan, analisi hau burutzeko beste aldagai batzuei erreparatzea erabaki da, EAEko eskualdeen errealitatea hobeto azaltzeko gai dela uste delako.

Mikroenpresek (hots, 0-9 langile arteko enpresek) sortutako enpleguaren ehunekoari dagokionean, nabaria da euskal ekonomian enpresa txikienek pisu handia daukatela. Izan ere, EAEko batezbestekoaren arabera (%36,74), hiru lanpostutik bat sortzen dute gisa honetako establezimenduek. Hala ere, eskualdeen artean diferentziak nabariak dira. Araban, Errioxa Arabarra eskualdean enplegu osoaren ia erdia suposatzen dute mikroenpresek (%47,24) eta Arabako Ibarrek eskualdean, ostera, laurdena baino zertxobait gehixeago baino ez (%27,65). Gipuzkoan, antzeko irakurketa egin genezake Bidasoa Beherea (%47,29) eta Deba Garaia (%24,90) eskualdeekin. Bizkaian, Durangaldean lortuko litzateke baliorik txikiena (%31,19) eta Enkartzioak eskualdean handiena. Azken honetan, mikroenpresek enplegu osoaren erdia baino gehiago sortzen dute (%55,28) eta berriro, eskualdearen zaugarritasun mailaren adierazleetako bat izan daiteke.

Neurri batean, azken bi aldagai hauek euren artean erlazionatuta egon daitezkeela ikusi daiteke. Hain zuzen ere, joera bera mantentzen da 3 probintzietan: industriako enpresen batez besteko langile kopurua handiena den eskualdeetan, mikroenpresek sortutako enpleguaren ehunekoa txikiena da (begiratu Arabako Ibarrek, Durangaldea eta Deba Garaia).

Azkenik, 100 langiletik gorako enpresen ehunekoak, enpresa-traktoreen ideari erantzun nahi dio.⁹ Lidergo eta garrantzia handiko enpresak dira hauek, eskualde horretako ekonomian modu agregatuan (zuzenean edo zeharka) eragiten dutenak, efektu biderkatzailea eraginez. Enpresa-traktore moduan ezagutzen dira, eskualde horretako gainontzeko enpresa ertain eta txikien trakzio lanak burutzen dituzten heinean (IDEPA, 2015). Neurri batean, enpresa-traktore hauek eskualde bateko dinamikotasun eta erresilientzia-maila handiago baten adierazle izan daitezke. Esparru honetan, Durangaldea (%0,76), Deba Garaia (%1,13) eta Goierri (%0,54) eskualdeak nabarmentzen dira. Ondorengo taulak (Taula 4) biltzen ditu eskualde hauetako enpresa-traktoreak. Halaber, aldagai honi erreparatuta, hiriburua barne duten eskualdeek ere balio altuak dituztela esan daiteke, Arabako Lautada (%0,68), Bilbo Handia (%0,51) eta Donostialdea (%0,56) eskualdeetako datuek erakutsi dezaketen moduan.

Taula 4. **ENPRESA-TRAKTOREAK**

Deba Garaia	Fagor Arrasate, Ulma Packaging, Copreci, Fagor Ederlan S. Coop, Soraluze, Matz Erreka, Hijos de Juan de Garay, Talleres Protegidos Gureak, Elay Industrial, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa.
Durangaldea	Tenneco, Gestamp Bizkaia, Smurfit Kappa Nervion, AL-ko Rekord, Betsaide, Pierburg, Orbea, Layde Steel, Fundiciones Garbi.
Goierri	CAF, Irizar, Indar, Orkli, Arcelor Olaberria, Ampo, Fundiciones del Estanda, Jaso, Ederfil, Hine, G.H., Valvulas Poyam.

Iturria: norberak egina Goieki Goierriko Garapen Agentziak erraztutako Goierriko Gida Industrialeko datuetatik, Ainara Basurkok erraztutako Durangaldeko datuetatik, eta Debagoienako Garapen Ekonomikorako Agentziatik erraztutako datuetatik abiatuta.

⁹Kontuan izan 100 langiletik gorako enpresa guztiak ez direla enpresa traktoreak izango, beharrezkoa izango delarik eskualde horretako ehun produktiboarekin lotura izatea, tokian tokiko ekonomian eragina izatera iritsiz.

4.4 Lan-merkatua

Eremu geografiko bateko ekonomiaren bilakaera eta norabidea ulertzeko ezinbestekoa da lan-merkatuaren inguruko analisia burutzea. Lan eskaria eta eskaintza hobekien bateratzeko gaitasuna duen eremu geografikoak, okupazio tasa handiagoa eta langabezia-tasa txikiagoa lortzeko aukera izango du, eskualde horretako biztanleen ongizatean eragin positiboa izan dezakeelarik (Uranga et al., 2007).

Eskualde bateko ekonomia portaeraren adierazle diren heinean, jarraian ageri den taulak (Taula 5) hiru aldagai esanguratsu aurkezten ditu: jarduera-tasa, langabezia-tasa eta okupazio-tasa. Horretarako, 16 eta 64 urte arteko populazioa baino ez da kontuan izan, hots, lan egiteko adinean dauden populazioaren datuetatik abiatuta kalkulatu dira.¹⁰

Taula 5. LAN-MERKATUA			
	2015		
	Jarduera-tasa* (%)	Langabezia-tasa* (%)	Okupazio-tasa* (%)
Arabako Ibarrak	81,10	14,20	69,60
Arabako Lautada	77,15	13,65	66,65
Arabako Mendialdea	84,10	7,10	78,20
Errioxa Arabarra	81,40	11,40	72,10
Gorbeia Inguruak	80,60	8,4	73,80
Kantauri Arabarra	74,90	16,30	62,60
ARABA			
Arratia Nerbioi	80,70	17,50	66,60
Bilbo Handia	76,25	17,40	62,95
Durungaldea	80,10	14,40	68,60
Enkartzazioak	77,50	19,00	62,80
Gernika-Bermeo	80,40	13,10	69,90
Markina-Ondarroa	70,70	14,50	60,40
Plentzia-Mungia	78,10	15,20	66,20
BIZKAIA			
Bidasoa Beherea	77,50	15,85	65,20
Deba Beherea	79,90	16,90	66,40
Deba Garaia	76,20	11,10	67,80
Donostialdea	76,20	13,20	66,10
Goierrri	74,00	8,90	67,40
Tolosa	81,80	14,80	69,80
Urola Kosta	73,15	9,10	68,55
GIPUZKOA			
EAE	76,00	14,80	64,70

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (Censo del Mercado de Trabajo, 2015)

* Datu hauek kalkulatzeko, 16 eta 64 urte arteko populazioa baino ez da kontuan izan.

¹⁰ Beste zenbait iturri estatistikok (Eustat edo INEk, kasu), populazio osoa kontuan hartzen dute, eta hargatik, zenbatekoa txikiagoa izaten da, jarduera-tasa eta okupazio-tasari dagokionean, behinik behin.

Jarduera-tasari dagokionean, eskualdeen arteko diferentziak nabariak dira. Hala, Araban eta Bizkaian, ia 10 puntuko diferentzia dago jarduera-tasa handiena eta txikiena duten eskualdeen artean. Araban, Arabako Mendialdeak (%84,10) izango luke jarduera-tasa balio handiena, eta Kantauri Arabarrak (%74,90) txikiena. Bizkaian, oster, Gernika-Bermeo (%80,40) eta Durangaldea (%80,10) nabarmendu daitezke balio handiena lortzen duten eskualde moduan eta Markina-Ondarroa (%70,70) gutxien lortzen duen eskualde gisa. Gipuzkoan, ia 9 puntuko diferentzia dago Tolosa (%81,80) eta Urola Kosta (%73,15) eskualdeen artean. Zaila da zenbateko hauen bilakaera justifikatu eta atzematea, populazioaren bilakaeraren arabera delako. Zenbait kasutan, biztanleria inaktiboaren gorakadari erantzun diezaioke, beste zenbait kasutan, populazioaren aldakuntza positibo bati.¹¹

Okupazio-tasari erreparatuz gero, antzeko irakurketa egin daiteke. EAeko batezbestekoa %64,70 zenbatekoan kokatzen da; hau da, 16-64 urte arteko biztanleria kontuan izanik, horien ia bi heren okupatuta aurkitzen da. Batezbesteko horretatik gora aurkitzen dira hainbat eskualde. Azpimarragarrienak, Araban, Arabako Mendialdea (%78,20) eta Gorbeia Inguruak (%73,80) eskualdeak lirateke; Bizkaian, Gernika-Bermeo (%69,90) eta Durangaldea (%68,60); eta azkenik, Gipuzkoan, Urola Kosta (%68,55), Deba Garaia (%67,80) eta Goierri (%67,40).

Langabezia-tasarekin jarraituz, EAeko batez besteko langabezia-tasa %14,80koa zen 2015 urtean. Arestian aipatu da azken datua eskuartean (2017ko lehen hiruhilekoari dagokiona), EAeko batezbestekoa %11,80koa dela. Badirudi, ekonomiako datu makroekonomikoek hobera egiten dihardutela eta pixkanaka, krisi aurreko enplegu maila berreskuratzen ari direla EAeko eskualdeak. Hala ere, diferentziak nabariak dira eskualdeen artean. 2015eko datuetan oinarrituz, Enkartazioak eskualdeak %19ko langabezia-tasa aurkezten zuen bitartean, Goierri %8,90koa zen. Honek, aurreko analisietan aipatutako zenbait aspektu berresten ditu, Goierriren erresilientzia-maila handiago baten alde eta Enkartazioak eskualdearen zaugarritasun mailaren adierazgarri moduan aurkeztuak, besteak beste.

Bukatzeko, eta aurreko bi aldagaien haritik tiraka, bistakoa da okupazio-tasaren eta langabezia-tasaren artean erlazio negatiboa egongo dela, hots, eskualde batek orduan eta okupazio-tasa handiagoa izan, orduan eta langabezia-tasa txikiagoa izango duela. Langabezia-tasako datuei erreparatuta, EAeko eskualdeetan joera hori mantentzen dela ikusi daiteke, berriro ere, Arabako Mendialdea (%7,10), Gorbeia Inguruak (%8,40), Gernika-Bermeo (%13,10), Durangaldea (%14,40), Goierri (%8,90), Urola Kosta (%9,10) eta Deba Garaia (%11,10) nabarmen direlarik langabezia-tasa maila txikiena daukaten eskualde moduan, probintziak. Arrazoi ezberdinak egon daitezke honen atzean, besteak beste, aurrez egindako analisiekin bat etorriko liratekeen argudioak, antolakuntzarako dinamikotasuna eta tokiko erakunde, mankomunitate eta garapen agentzien funtzionamendua.

¹¹Era berean, erabilitako inkesta metodologiak ere eragina dauka. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak eskaintzen dituen datu hauek, Eustat eta Udalmapeko datuekin alderatuta, nahikoa aldentzen dira, batez ere, jarduera-tasari dagokionean. Metodologia ezberdinak erabiltzeagatik sortutako arazo baten aurrean geundeke.

4.5 Ikerketa eta Garapena

Tokian tokiko ekonomiaren norabidea, eskualde horren lehiakortasunaren arabera izango da. Autore batzuentzat, lehiakortasuna azaltzen duen ezaugarri garrantzitsuenetako bat berrikuntza da; «nazio baten lehiakortasuna, bere industria hobetzeko eta garatzeko duen gaitasunak baldintzatuko du» (Porter, 1990). Eremu geografiko bateko enpresen produktibitatea eremu horretako lehiakortasun-mailaren adierazle erabakigarria dela kontuan izanik, eta berrikuntza produktibitatearen adierazgarri, Ikerketa eta Garapenari lotutako aspektuak aztertzea interesgarria izan daiteke (Uranga et al., 2007).

Horretarako, bi aldagai aztertzen dira seigarren taulan. Batetik, Ikerketa eta Garapeneko barne-gastua, eta bestetik, dedikazio osoko baliokidetzazko langileak. Eskualde bakoitzerako, aldagai hauek balio absolutuan zein ehuneko erlatibotan aurkezten dira, EAE oinarri hartuta.

Taula 6. IKERKETA eta GARAPENA				
	2015			
	I + G barne-gastua		DOBko langileak*	
	Guztira**	%	Guztira	%
Arabako Ibarak	1.002	0,1	17,4	0,1
Arabako Lautada	143.592	11,3	2.130,8	11,7
Arabako Mendialdea	429	0,0	8,9	0,0
Errioxa Arabarra	4.987	0,4	76,0	0,4
Gorbeia Inguruak	4.584	0,4	81,8	0,4
Kantauri Arabarra	11.300	0,9	110,2	0,4
ARABA				
Arratia Nerbioi	7.152	0,6	98,7	0,5
Bilbo Handia	491.415	38,6	7.228,7	39,7
Durangaldea	50.919	4,0	703,5	3,9
Enkartazioak	80	0,0	1,4	0,0
Gernika-Bermeo	14.801	1,2	143,1	0,8
Markina-Ondarroa	17.303	1,4	194,8	1,1
Plentzia-Mungia	15.987	1,3	191,7	1,1
BIZKAIA				
Bidasoa Beherea	6.573	0,5	108,4	0,6
Deba Beherea	65.841	5,2	937,4	5,1
Deba Garaia	74.306	5,8	1.120,8	6,2
Donostialdea	238.596	18,7	3.626,7	19,9
Goierri	74.639	5,9	743,1	4,1
Tolosa	13.815	1,1	187,6	1,0
Urola Kosta	35.884	2,8	506,1	2,8
GIPUZKOA				
EAE	1.273.207	100	18.217,1	100

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika I+G

* DOB: dedikazio osoko baliokidetzazko langileak

** Mila eurotan

Aurreko datuetan oinarrituta, eta beste autore batzuen sailkapen irizpideak jarraituta (ikus Zubiaurre et al., 2009), ondorengo taldeetan bereiztu ditzakegu eskualdeak.¹²

- *Taldea 1. Egitura produktibo dibertsifikatua daukaten metropoliko eskualdeak.* Probintzietako hiriburuak barnebiltzen dituzten hiru eskualdeek osatzen dute: Arabako Lautada, Bilbo Handia eta Donostialdea eskualdeek, hain zuzen ere. Ikerketa eta Garapeneko barne-gastuari dagokionean, EAeko barne-gastu osoaren %11,3, %38,6 eta %18,7 suposatzen dute, hurrenez hurren. Aurrez egindako analisietan ikusi da, EAeko populazio eta ekonomiaren pisu handi bat bertan metatzen dela, eta zerbitzuen sektoreak garrantzia azpimarragarria daukala eskualde hauetan. Erruz, berrikuntza eta jakintza-zentroen zati handi bat bertan kontzentratzen da, ikerketa-zentro edo parke teknologiko moduan, besteak beste.
- *Taldea 2. Eskualde industrial aurreratuak.* Goierri, Deba Garaia, Deba Beherea eta Durangaldea eskualdeek osatuko lukete. Aztergai diren aldagaiei dagokionean, %4-6 arteko pisua daukate EAEn, bai barne-gastuari erreparatuz eta baita I+G alorrean ari den langile kopuruari erreparatuta ere. Historikoki industriaren pisua garrantzitsua izan den eskualdeei buruz ari gara, aurreko analisi batzuetan ikusi ahal izan dena berretsiz. Gainera, eskualde horietako batzuetan Lanbide Heziketa zentroek jokutzen duten rola ezin da ahaztu. Goierri, esaterako, Goierri Eskolak 1963 urtetik lanean dihardu, Goieki Garapen Agentzia eta eskualdeko enpresa eta bestelako instituzioekin elkarlanean. Halaber, azpimarratzeko modukoa da Deba Garaia eskualdeak, hiriburuetatik at aurkitzen den unibertsitate garrantzitsuenetako bat biltzen duela: Mondragon Unibertsitatea. Durangaldeari dagokionean, ikerketa metalurgikoan espezializatzen den Azterlan zentro teknologikoa azpimarratu beharko litzateke. Eskualde bateko dinamikotasun adierazle moduan ikusi daitezke azken hiru adibide hauek, giza kapitala metatu eta tokiko instituzio eta enpresen arteko lankidetzak aktiboki garatua izatea ahalbidetzen duten neurrian.
- *Taldea 3. Maila teknologiko ertaineko eskualde industrialak.* Talde honetan barneratuko lirateke Kantauri Arabarra, Tolosaldea, Urola Kosta, Arratia-Nerbioi, Gernika-Bermeo, Markina-Ondarroa eta Plentzia-Mungia eskualdeak. Batez ere, Bizkaia eta Gipuzkoako eskualdeak biltzen ditu talde honek eta EAeko %0,5-3 arteko pisua izango lukete. Esparru honetan, Markina-Ondarroa eskualdeari dagokionean, Polimeroen Teknologian eta Elikagaien Teknologian espezializatutako Leartiker Teknologia Zentroa azpimarratu daiteke.¹³

¹²Puntu honetara iritsita, I+G analisia eskualde mailara mugatzea zaila dela azpimarratu beharko litzateke. Lehenik, taulako balioek erakusten duten moduan, datuak eskualdearen tamainarekin (populazio zein BPG pisuarekin) bat datoz, eta bestetik, ikerketa zentro gehienak hiriburu inguruetan kokatzen dira. Gehienetan, ikerketa zentro hauen zabalkundea eskualdetik haratago doa; hots, eskualde bateko I+G gastua ez dago eskualde horretara soilik hertsiki lotua. Hala ere, eskualdeen artean ezberdintasunak badaude, eta dinamikotasun adierazlea den neurrian, lan honetan aurkezteko aspektu ezinbestekotzat jo da.

¹³Aurrerago aztertuko da Markina-Ondarroa edo Lea Artibai eskualdea sakonago, Garapen Agentziarekin batera, beste zenbait fundazio eta instituzio daudelako eskualdearen dinamikotasunean positiboki eragiten dutenak, tartean, aipatutako Leartiker Teknologia Zentroa, berriki Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko partaide onartua izan dena.

- *Taldea 4. Maila teknologiko baruko eskualde txikiak.* Arabako hiru eta Gipuzkoako eskualde batek osatuko lukete talde hau eta EAE bere osotasunean hartuta, euren pisua oso txikia izango litzateke. Zehazki, Bidasoa Beherea (%0,5), Gorbeia Inguruak (%0,4), Errioxa Arabarra (%0,4) eta Arabako Ibarak (%0,1) eskualdeek osatzen dute. Sektore produktiboari dagokionean, ez diote perfil konkretu bati erantzuten, Bidasoa Beherea eskualdean zerbitzuen pisua nabarmena den heinean, Errioxa Arabarra eskualdean nekazaritza eta ardoaren sektorearen pisua nabarmena baita.
- *Taldea 5. Eskualde txikiak.* Azken talde honetan barneratuko lirateke Arabako Mendialdea eta Enkartazioak. Ikerketa eta Garapenari dagokionean, EAE guztia kontuan hartuz, euren ekarpena ia ezereza da. Hala ere, norabide eta egoera oso ezberdineko bi eskualde dira. Esaterako, langabezia-tasari erreparatuz, Arabako Mendialdea oso ondo kokatuko litzateke (2015eko datuaren arabera, %7,1eko langabezia-tasa) eta Enkartazioak, aldiz, egoerarik makurrenean (%19ko langabezia-tasa).

4.6 Ekonomia dinamismoa

«Ekonomia batean, dinamismo handiago batek produktibitatearen hazkunde azkarrago bat eragiten du denbora luze baterako, eta ondorioz, epe luzean produktibitatearen maila altuagoa. Dinamismoak, eremu geografiko bateko jarduera ekonomikoari mesede egiten dio: esparru finantzarioan lanpostuak sortzen ditu, merkaturatzeko produktu berri gehiagoren garapen eta sorkuntza eragiten du, eta halaber, ekintzaitza maila areagotzen du. Era honetan, tokiko enpleguaren susperraldia mesedetu dezakeela argudiatu daiteke. Testuinguru berean, dinamismo handiago batekin, egiten duten lanarekin gusturago dauden langileak eta lanerako konpromiso gehiago daukatenak topatzea errazagoa izango denaren ebidentzia badago». Edmund S. Phelps ekonomialariaren hitzak dira, 2006an Ekonomia Nobel Saria jaso zuen ekonomialariarenak (Phelps, 2008). Urte asko daramatza ekonomia dinamismoa aztertzen.

Orain arteko argazkiari lagun diezaioke EAeko eskualdeen ekonomia dinamismoaren adierazgarri izan daitezkeen pare bat aldagairi erreparatzeak. Zehazki, dinamismoaz hitz egitean, enpresa eta enplegu dinamismoa aztertzea interesgarri gerta dakiguke. Eustatek eskaintzen dituen datuetatik abiatuta, hurrengo taulak (Taula 7) 2011 urtean alta emandako enpresak oinarri moduan hartu eta bost urte beranduago, 2016an, bizirik dauden enpresen eta azken hauek mantendu duten enpleguaren ehunekoia adierazten du.¹⁴

EAE kontuan hartuta, 2011 urtean sortutako enpresen erdia desagertu egin da; ordea, 2011an sortutako 10 lanpostutatik 7 mantendu dira. Analisia probintziaka eginda, ez da diferentzia nabarmenik ikusten, Gipuzkoaren dinamika zertxobait hobea den arren.

¹⁴Oharra: atal honetan aurkezten dena, Eustatek eskaintzen duen lagin bati dagokio, beraz, errealitatearen isla dira, baina tentu handiz interpretatu behar dira datuok. Lagin honetan, 2011 urtean sortutako enpresak hartzen dira oinarri moduan, aurrez eta ondoren sortutakoak kontuan izan gabe. Enplegua, aldiz, sortutako enpresa berri horiei dagokiena da. Esan gabe doa, 2011 urtean sortutako enpresa gehienak txikiak izan zirela, beraz, euren biziraupena hasierako urteen bilakaeraren araberkoa izan da, epe oso laburrean itxi egin direlarik.

Alabaina, eskualdeen artean aldeak agerikoak dira. Probintziaka, Arabako eskualdeen artean daude diferentziarik handienak (ikus Arabako Mendialdea eta Gorbeia Inguruak¹⁵ eskualdeen datuak, adibidez), Gipuzkoako eta Bizkaiko eskualdeen artean ezberdintasunak hain esanguratsuak ez direlarik (Bizkaian Enkartazioak salbuespen). Datu hauek eskuartean, dinamismo gutxien erakutsi duten eskualdeen artean, Arabako Mendialdea (bizirik dauden enpresak soilik %37,50 dira eta mantendu den enplegua %36koa baino ez) eta Enkartazioak (bizirik dauden enpresak %45,61 izanik eta mantendu den enplegua %46,49) aurkitzen dira. Berriki talde berean sailkatu diren bi eskualde dira, norabide eta egoera oso ezberdinekoak. Hala ere, bi eskualde hauetan industria sektorearen pisua oso txikia da, eta puntu honetan, industriak eskualde bateko dinamikotasunean eragin positiboa izan dezakeela aurreikusi daiteke.

Taula 7. EKONOMIA DINAMISMOA			
	2011 urtea	2016	
		Bizirik dauden enpresak	Mantendu den enplegua
Arabako Ibarrak	100	48,65	82,43
Arabako Lautada	100	48,98	65,18
Arabako Mendialdea	100	37,50	36,36
Errioxa Arabarra	100	63,53	88,68
Gorbeia Inguruak	100	57,63	105,95
Kantauri Arabarra	100	49,67	78,88
ARABA	100	49,80	68,73
Arratia Nerbioi	100	50,89	61,58
Bilbo Handia	100	48,22	71,32
Durungaldea	100	46,67	69,41
Enkartazioak	100	45,61	46,49
Gernika-Bermeo	100	49,25	72,06
Markina-Ondarroa	100	55,26	63,55
Plentzia-Mungia	100	47,60	62,86
BIZKAIA	100	48,19	70,08
Bidasoa Beherea	100	46,64	61,91
Deba Beherea	100	51,50	78,99
Deba Garaia	100	47,46	59,38
Donostialdea	100	52,85	72,36
Goierri	100	44,32	80,48
Tolosa	100	54,65	70,09
Urola Kosta	100	52,56	74,38
GIPUZKOA	100	50,98	71,81
EAE	100	49,31	70,38

Iturria: norberak egina Eustateko enpresak sortzearen eta ixtearen estatistika datuetatik abiatuta.

¹⁵Eskualde honen kasuan, mantendu den enplegua ehunetik gora egoteak adierazi nahi duena da bizirik dauden enpresek langile gehiago kontratatu dituztela. Zehazki, Gorbeia Inguruak eskualdeari dagokionean, 2011an sortutako enpresa denek 168 langile enplegatu zituzten; 2016an geratzen ziren enpresek, 178 langile.

Gipuzkoan, Goierri eskualdearen kasua azpimarragarria da. Bizirik dauden enpresen ehunekoa txikiena izanagatik (2011an sortutako enpresen %44,32 baino ez dago bizirik), enplegu gehien mantendu duen Gipuzkoako eskualdea da, 10 enplegutik 8 mantendu direlarik. Berrero, Goierri eskualdean enpresa traktoreek jokatzen duten papera aipatu beharko litzateke, krisi ekonomikoa ondo erantzuten ari direlako. Honek, eskualdean sortu daitezkeen enpresa txikiei mesede egiten die, besteak beste, enpresa traktore hauen hornitzaile izan daitezkeenei. Gipuzkoan jarraituz, Deba Garaia eskualdearen kasua aipatzea ere ezinbestekoa da. Desagertu diren enpresak EAEko batezbestekotik gertu egon arren, mantendu den enplegua batezbestekotik nahiko behera dago, 2011 urtean sortu eta bizirik dauden enpresetan 10 enplegutik soilik 6 mantendu direlarik. Aurreko analisietan oinarrituz, oro har, dinamikotasun handiko eskualde bezala aurkeztu da eskualde hau eta badirudi kontraesanean erori dela dinamikotasunaren azterketarekin. Puntu honetan, ezin ahaztu 2013ko urriaren 16an, eskualde horretako ikur nagusia den Fagor Etxetresnakek krisiaren eragina gogor jasan eta hartzekodunen konkurtsoa aurkeztu zuela, eskualde horretako enpresa txikiei ere negatiboki eraginez (Kapanaga, 2015).

4.7 Garapen Agentziak

Garapen agentziek dagokien eskualdeko edo udalerriko garapen sozioekonomikoa sustatzea dute helburu eta hori lortzeko, esparru ezberdinak hartzen dituzte langai, besteak beste, pertsonen enplegarritasuna hobetzea, enpresa berriak sortzen laguntzea, lehiakortasuna hobetzea eta lekuan lekuko proiektu estrategikoak sustatzea. Horretarako, arlo horietan diharduten gainerako eragile publiko zein pribatuekin lankidetzan jardutea ezinbestekoa da. Testuinguru honetan, garapen agentziek eta hauen inguruko zenbait erakundek zeregin garrantzitsua dute behetik gorako prozesuei bide emateko eta horrekin batera, kapital soziala pilatzen laguntzeko.

EAEk eskualdeko garapen ekonomikorako agentzia sare zabala dauka. Garapen Agentzia hauetariko asko 80 hamarkadaren amaieran sortuak dira eta ezaugarri antzekoak partekatu ditzaketen arren, probintzia bakoitzean ezaugarri eta eredu ezberdinak bereizten dira. Hala, Gipuzkoaren kasuan, eskualde-identitateak prozesu natural bati erantzun dio, hainbat herritako udaletxeak batu eta eskualde mailako agentziak sortzen joan direlarik; orotara, 11 garapen agentzia, gaur egungo ekonomia egoeran modu batera edo bestera eragin dutenak. Bizkaiko kasuan, 20 dira Behargintza zentroak, gehienak, udalerrri-zentro moduan, enpresa berriak sortu eta enplegua sustatzea helburu dutelarik. Azkenik, Arabari dagokionean, eredu ez dela aurreko bi lurralde historikoetan bezala garatu azpimarratu behar da; hala ere, 9 agentzia ditu egun (Estensoro et al., 2015).

Aipatutako agentzia guzti horietatik 33 (Bizkaiko 20, Gipuzkoako 10 eta Arabako 3), *Garapen* Garapen Agentzien Euskal Elkarteari lotuak daude.¹⁶ Elkartearen arabera, garapen agentzia guzti hauek EAEko populazioaren %85ari ematen diote zerbitzua.

¹⁶Eranskinean bildu dira elkarte hau osatzen duten garapen agentzia guztiak, lurralde historikoaren arabera (ikus 8.5.2. puntua).

Elkarte honek, tokian tokiko erakundeek eraturako garapen-agentziak batzea du xede, bi helburu nagusi hauek oinarri hartuz: tokian tokiko izaera endogenoko garapen ekonomikoaren gainean kontzeptualizatzea, eta garapen horren proiektio estrategikoa eta aplikazio operatiboa lantzea.¹⁷ Horretarako, agentziei zerbitzu ezberdinak eskaintzen dizkio, hala nola, aholkularitza, zuzendari eta teknikariei prestakuntza, hausnarketa-foroak,...

Puntu honetan azpimarratzekoa da garapen ekonomikorako esparruan ez dagoela legedi edo araudi bateratu eta orokorrik EAEko eskualde edo udalerrri bakoitzaren kompetentzia eta egitekoak zein izango diren zehaztuko dituen. Hots, eremu administratibo bakoitzaren erantzukizuna (eskualdeko garapen ekonomikoaren esparruan) ez dago legez zehaztua. Ondorioz, eskualde bakoitzaren gobernantza-antolamendua ezberdina da, baita jarraituko duen estrategia eta norabidea ere.

Jarraian, Gipuzkoako eta Bizkaiko garapen agentzia bana aurkeztuko dira, ibilbide luzekoak biak eta eskualdeko ekonomian eragiteko gai direnak.

4.7.1 Goieki Goierriko Garapen Agentzia

Goieki Goierri Eskualdearen Garapenerako Agentzia da, 1993 urtean sortu zen eta Goierriko eskualdea osatzen duten 18 udalek eratzen dute. Ordizian kokatuta dago agentzia eta bertan, dozena bat langile inguru dabil lanean, bost sailetan banatuta: Zerbitzualdea edo eskualdeko enpresa industrialei laguntza eskaintzen dien saila, Inkubategia edo ekintzaile berriei laguntza eskaintzeko saila, Goitur S.L. Goierri turismoa bultzatzeaz arduratzen den saila, Ingurumen Saila eta Gizarte arloa. Egun, EAE mailan Garapen Agentzia dinamikoenetako bat da, agente instituzional eta ekonomiko ezberdinek Goierriren egungo egoera ekonomiko onaren eragile esanguratsu gisa ipintzen duten arte.

Alabaina, historian atzera egin behar da Goiekiren arrakasta ondo ulertzeko. Iker Galparsoro Goiekiko zuzendariaren hitzetan, 80 hamarkadako krisi ekonomiko bortitza izan zen Goierri eskualdeko udaletxeen eta enpresen batasuna ekarri zuena. Izan ere, 1982 eta 1992 urteen artean, Goierriko sektore industrialak galera nabarmena jasan zuen; urte zailak izan ziren, kaleratzeak ugaritu eta enpresa askok itxi egin behar izan zuten, langabezia-tasa %25 ingurura hurbilduz. Testuinguru horretan, eskualdeko agente sozioekonomiko ezberdinak elkartu eta hausnarketa prozesu bati hasiera eman zitzaion. Hala, 1986an Goierri Fundazioa sortu zen, Goierri Eskolarekiko konpromisozko proiektua izan zena eta urtero aurrera eramane beharreko inbertsio eta proiektuak koordinatuko zituen. Honen baitan, 1991 urtean, Goierri zerbitzu teknologikoa sortu zen, ingenieritza zerbitzu teknologikoa eskeini eta sektore industrialarekiko etorkizunerako apustu irmoa zena. Aipaturako hausnarketa horrek, Goierri Eskualdeko Plan Estrategikoaren sorkuntzari bide eman zion eta planteaturako erronkak dinamizatze helburuarekin, 1993an, Goieki sortu zen.

¹⁷Informazio gehiagorako: <http://www.garapen.net>

Ordutik, eskualdeko enpresa txiki eta ertainak babesten dihardu, baita erronka enpresarial berriei aholkularitza ematen ere. Eskualdearen eta momentuaren beharretara egokitzen jakin du, epe luze eta etorkizunari garrantzia emanez. Hala, 2005 urtean, Eskualdeko Plan Estrategiko berria garatu zen, goierritar guztien bizi-kalitatearen hazkunderako garapen sustengarria sustatzeko asmotan. 2007tik 2011ra bitartean, bestetik, Goiekiren helburu nagusietariko bat izan zen Lankidetzaren Sarea (LS) sortzea, eskualdeko enpresen lehiarako gaitasunak hobetu asmoz. Horretarako, beharrezkoa zen eskualdeko beste agente batzuk ekimenera batzea eta honen emaitza izan zen Industria Foroa. Egun, eskualdeko enpresa traktore garrantzitsuenen ordezkariak, agentziako langileak, Goierri Eskolako ordezkariak eta alderdi politiko ezberdinetako ordezkariak osatzen dute eta gobernantza eredu berri bat suposatzen du. Halaber, 2012an, *Get Goierri Basque Country* sortu zen, soluzio integralak eskaintzen dituen Goierriko enpresen arteko aliantza estrategikoa. Azken honetatik tiraka, berriki, eskualdeko 33 enpresak (enpresa traktoreak zein enpresa txiki eta ertainak) *Goierri Valley* sortu dute, orotara 5.800 langile inguru biltzen dituen aliantza estrategikoa eta enpresek ezagutza partekatu eta bakarrik aurrera eramanez ahal izango ez lituzketen proiektuak garatzea helburu duena.

4.7.2 Lea Artibaiko Garapen Agentzia eta Azaro Fundazioa

Lea Artibaiko Garapen Agentzia 2002an sortu zuten Berriatua, Etxebarria, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein eta Ondarroako udalek, garapen ekonomikoa eskualde ikuspuntuaz, herrien osagarritasunean eta lankidetzan oinarrituz sustatzeko. 2015 urtera bitarte Lea Artibaiko Garapen Agentziaren eta Azaro Fundazioaren zuzendari izan zen Ainara Basurkoren hitzetan, eskualdearen garapenean lagunduko duen leihatila eraginkorra izatea du lehen helburu, banakakoei, sustatzaileei eta enpresei informazio eta zerbitzu egokiak eskainiz. Horretarako, laneratze aukerak hobetzen lagun dezaketen formazio ikastaroak antolatzen ditu, autoenplegu proiektuak lagundu edo berrikuntza proiektuak definitzen lankidetzaren eskaini enpresei. Halaber, azpiegitura egokiak ahalbidetzea ere badu xede, eskualdean enpresa sare indartsua kontsolidatu dadin (Hazi, 2008). Bizkaiko eskualdean ez ezik, EAE mailan erreferentzia da Lea Artibaiko Garapen Agentzia.

Ordea, bide horretan ez dago bakarrik; Lea Artibaiko eskualdean, Azaro Fundazioak oso paper garrantzitsua jokatu du, bertako eragileen hausnarketaren topaleku eta lekuko garapen ekonomiko eta soziala suspertzeko tresna gisa. Bi erakunde hauek elkarlanean dihardute, baina ez da goizetik gauerako kontua izan; kasu honetan ere, historian atzera egitea funtsezkoa da lidergo sendo hau nondik eratorria den ikusteko. 50 hamarkadaren erdialdean, Markinan kokatutako Parrokiko Eskolak mekanika eta elektronika ikasketak burutzen ari ziren gazteak batu zituen. Arrasate inguruan jazotzen ari zenaz kutsatuta, pixkanaka, kooperatiben mugimendua Lea Artibaiko eskualdean errotzen hasi zen. Beranduago, arrakastaren bidean mugarri izan zen 1974 urtea; Laboral Kutxarekin lankidetzan, eskualde mailako hausnarketa estrategikoa burutu zen («Análisis y perspectivas de desarrollo de la comarca de Marquina»),

erronka eta proiektu berri askoren lehen bide-orria ahalbidetuz. Hala, 1976an, Lea Artibai Irakaskuntzarako Kooperatiba Elkartearen osatu zen, industriari erabat lotua. 90 hamarkadaren erdialdean, Lea Artibaiko Mankomunitatea osatzen zuten udalek Plan Estrategiko bat aurrera eramane zuten, eskualdearen hazkunde orekatu bat helburu. Prozesu guzti honetan, Lea Artibai Ikastetxearen papera ere azpimarragarria da, besteak beste, Azaro Fundazioaren sorreran ezinbestekoa izan zelako, beste zenbait instituzioekin lankidetzan (Basurko, 2005).

Kapital sozial, lidergo sendo eta eskualde kontzientziaren adierazle garbia da Markina-Ondarroa edo Lea Artibai eskualdea. Orain hamarkada batzuk gainbehera garbian zegoen eskualde bat, leku zailean kokatutako eskualde txikia izanda gainera, bizi berritu egin da, neurri handi batean, sortutako ekosistema instituzional horri esker. Izan ere, elkarren artean lankidetzan diharduten instituzio sare indartsua sortzeko gai izan da, besteak beste, goi mailako Lanbide Heziketa ikastetxe bat (katalizatzaile paper garrantzitsua jokatzen duena), Azaro Fundazioa, Okamika industrialdea, eskualdeko Amankomunazgoa, Lea Artibai Garapen Agentzia eta Leartiker Teknologia Zentroa. Esan gabe doa guzti honek kapital soziala pilatu ez ezik, eskualdearen ekonomia-dinamismo eta kohesio sozialari mesede egiten diola.

5 Analisi enpirikoa: erresilientzia eta enplegua

Aurreko atalean burutu den analisia agerian utzi ditu EAEko eskualdeen artean egon badauden ezberdintasun nabarmenak, ekonomiaren aspektu ezberdinak jorratu ostean. Alabaina, lan honen helburua ez da eskualdeak elkarrengandik urruntzen dituzten aspektuak mahaiaren gainean jartzea soilik, eremu geografiko bat zein faktorek egiten duen zaugarriago edo zeintzuk eragiten duten lurraldearen portaera dinamikan aztertzea baizik. Atal honetan, EAEko eskualdeetako erresilientzia-mailan eragiten duten faktore ezberdinak (horietako batzuk) identifikatu eta zehaztuko dira, faktore bakoitzaren garrantzia azpimarratuz.

Erresilientzia kontzeptuaren erabilera ekonometriko egokia egin ahal izateko, ezer baino lehen, hainbat dimentsio kontuan izan behar dira, azterketa eraginkor bati dagozkion aldagai eta adierazleak zehaztu aurretik.

Lehenik, aztertu nahi den shock edo perturbazio mota kontuan izan behar da. Kasu honetan, mundu mailan eragina izan zuen krisi ekonomiko orokor baten testuinguruan kokatzen gara, herrialde, eskualde eta eremu geografiko guztietan eragitera iritsi zelarik. Beraz, zentzu honetan inguru makroekonomikoa ia berdina izango dela azpimarratu behar da.

Bigarren dimentsioak, lurralde eremuari egiten dio erreferentzia. Erresilientzia ekonomikoa, geografikoki, nazioarte-, nazio- edo erregio-mailan definitu eta aztertu daiteke, baita enpresa konkretu batzuen pean ere. Lan honetan, aurreko atalek erakutsi moduan, erregio-mailan egiten da azterketa; zehazki, eskualde mailan. Eskualdea, ezaugarri edo irizpide jakin baten arabera batasuna agertzen duen lurraldea da, probintzia baino txikiagoa eta hainbat herri biltzen

dituena. Aurrekari historiko komunak, arrazoi geografikoak edo kidesun ekonomikoak izan ohi dira beraren oinarri.¹⁸ EAEren kasuan, eskualdeek ibilbide luzea daukate eta tokiko ekonomian eragina izan dezaketen eremu geografiko moduan onartuak eta aitortuak daude. Zentzu honetan azpimarratu behar da eskualdeak administratiboki legezko aitortzarik ez badu ere, errealitate sozial eta ekonomikoa duela, horren lekuko direlarik eskualde mailako amankomunazgo edo mankomunitateak eta lekuko garapen agentziak, besteak beste. Hala, zenbait aspektu ukiezin lantzeko esparru aproposa da eskualdea. Testuinguru honetan, autore ezberdinek azpimarratu dute ikerketa erregio-mailan aurrera eramatearen garrantzia, hipotesi edo emaitza nagusiak aldatu daitezkeen neurrian (Dapena et al., 2017)

Kontuan izan beharreko hirugarren dimentsioak, analisia burutuko den momentuari erantzuten dio. Esparru honetan aurrera eramandako ikerketa-lan ezberdinek, interesaren arabera, arreta gune ezberdinak izan dituzte, eta funtsean, hiru momentutan oinarritu dira: perturbazioaren aurretik, une horretan eta ondoren. Lan honetan, eskualdeen krisi garaiko bilakaera eta portaerari erreparatzen zaio bereziki eta egoera horrekiko portaera ulertzen laguntzeko erresilientzia da kontzeptu gakoak; hau da, eskualdeek krisi garaian izan duten portaera eta krisia nola kudeatu eta nola ari diren gaingitzen ulertzen laguntzeko kontzeptua. Zenbait adierazleren arabera (enpleguaren bilakaera, adibidez), badirudi krisiak hondoa jo eta errekupeazio bidea hartu duela; hargatik, 2014-2016 epea hartzen da kontuan, krisiaren urterik latzenak atzean utzi eta krisiak eztanda egin aurreko enplegu mailak berreskuratzen hasi diren urteak, hain zuzen ere.

Azkenik, laugarren dimentsioa erresilientziaren inguruko analisi egoki bat aurrera eraman ahal izateko aldagai eta adierazle esanguratsuak zehaztean datza, baita jarraituko den tratamendu ekonometrikostatistikoa ondo definitzean ere (Rosell et al., 2011).

5.1 Datuak eta aldagaiak

Jarraian aurkeztuko den eredu ekonometrikoan erabilitako datu guztiak, lanean zehar erabilitako iturri estatistiko nagusietatik eskuratu dira; hau da, Eustat eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saitetik. Halaber, kasu honetan zeharkako datuekin lan egingo da. Behaketa kopurua, eskualde kopuruari dagokio, eta ondorioz, 20 behaketa baino ez dira izango. Honek mugatuta, aldagai dependentea azaltzeko helburuarekin, 6 aldagai independente edo exogeno erabiliko dira.

5.1.1 Aldagai dependente edo endogenoa: enpleguaren aldakuntza

Arestian aipatu da eskualde bateko ekonomia portaeraren adierazle egokia dela lan-merkatua, eskualde eta giza taldeen arteko aldean arrazoi nagusienetariko bat izaki. Funtsean, hizpide dugun krisi ekonomikoak esparru horretan erasan du gehien eta egun, gizartearen kezka nagusietako bat bilakatu da enplegua. Erresilientzia eta lan-merkatua aztertu duten azken

¹⁸Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa.

urteetako lanek, langabezia-tasa erabili dute nagusiki aldagai dependente moduan. Hala ere, beste zenbait lanek beste aldagai batzuk erabili izan dituzte, enpleguaren bilakaera, esaterako (ikus Rosell et al., 2011).

Lan honetan, ereduaren bitartez azaldu nahi den aldagai endogenoa enpleguaren aldakuntza izango da. Zehazki, 2014 urtetik 2016 urtera bitarteko enpleguaren aldakuntza. Datuak eskuragarri dauden azken urteak izateaz gain, krisia atzean gelditzen ari denaren lehen aztarnak ageri dira. Beraz, zentzu honetan, ez da kasualitatea urte hauek aukeratu izana. Izan ere, BPGaren bilakaera aztertu ostean, 2014 urtean inflexio-puntu bat ematen dela ondorioztatu daiteke (ikus Eranskina, 8.6.1 puntua). Krisiaren ondorio nagusiak lehen bost urteetan nabaritu ostean, 2014 urtearen lehen hiruhilekotik aurrera, zenbateko positibotan hazi da BPGa EAEn.¹⁹

5.1.2 Aldagai independente edo exogenoak

Enpleguaren bilakaera aztergai, EAEko eskualdeen erresilientzia-mailan eragin dezaketen faktore azaltzaileek, lanean zehar aipatutako planteamendu teorikoei jarraitzen diete, aurreko atalean sakondu diren aspektu ezberdinak kontuan hartu direlarik; hala nola, enpresa-egituraketa, ekonomia-egitura eta demografia alorrei dagozkienak. Hala, ondorengo aldagaiak hartu dira kontuan²⁰:

- **Lehen sektoreko biztanleria.** Agerikoa da eskualde bateko ekonomia-egiturak tokian tokiko ekonomiaren bilakaera eta dinamikari eragingo diola. Hots, batez ere nekazaritza eta arrantzan pisua duen eskualde baten edo industria aurreratuaren pisua nabarmena den eskualde baten dinamika ekonomikoa ez da berdina izango. Lanean zehar azpimarratu da oro har eskualde dinamikoak historikoki edo tradizionalki industrialak izan direla. Halaber, zerbitzuen sektorea populazio gehien dagoen eremuetan garatu da nagusiki. Gainera, literaturaren errepasoa egiterako garaian, azpimarratu da industria eta zerbitzuen sektoreak eskualdeko erresilientzia-mailan eragina izan dezakeela frogatzeko hainbat ikerketa aurrera eraman direla. Hori dela eta, aurkako efektua behatu daitekeen kontrastatzeko helburuarekin, aldagai exogeno moduan barneratuko da nekazaritza eta arrantza sektoreetan okupatutako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren ehunekoak. Aurrez aipatutakoa kontuan izanik, aldagai honen koefizientea negatiboa izatea espero da, hau da, orduan eta pisu handiagoa izan lehen sektoreak, orduan eta zaugarritasun-maila altuagoa (erresilientzia-maila baxuagoa) izango du eskualdeak. Zortzigarren taulak (Taula 8) hautatutako aldagaien estatistiko deskribatzaileak aurkezten ditu. Bertan adierazten den moduan, aldagai honentzako, baliorik txikiena %0,81ekoa da eta handiena %22,05ekoa. Bilbo Handia eta Errioxa Arabarra eskualdeei dagozkie balio hauek, hurrenez hurren.

¹⁹Datu makroekonomiko positibo horrek, lan-merkatuari mesede egiten diola bistakoa da, nahiz eta jakitun izan azterketa sakonagoa eska dezakeela honek, sortutako enpleguaren kalitatea aztertzearena, kasu. Halaber, jakina da BPGaren hazkundeak enpleguari eragingo diola, baina ez neurri eta proportzio berdinean.

²⁰Aldagai independenteen urteak ez datoz bat beti. Horren arrazoia datuen eguneratze eta eskuragarritasuna da. Edozein kasutan, datu gaurkotuenak izaten saiatu da, ahalik eta urterik gertukoak erabiliz. Gainera, ereduaren barneratu diren aldagaien balioak ez dira moneta balioak eta horrek egonkortasuna ematen dio aldagaien zenbatekoari.

- **Biztanleria atzerritarra.** Demografia aspektuak ere ezin ahaztu daitezke. Hala, aldagai honek, aurreko atalean aztertu denari erantzun nahi dio, hain zuzen ere, biztanleria atzerritarraren presentziaren pisuari. 2016 urteari dagokion datua da, eta eskualde horretako biztanleria osoa kontuan hartuta, biztanleria atzerritarraren portzentajea adierazten du. Ikusi den moduan, baliorik txikiena Arabako Mendialdeak hartzen du (%3,96) eta Errioxa Arabarrak (%9,81) handiena. Aldagai honen koefizientea positiboa izatea espero da, urte luzeetan burututako ikerketa teorikoen emaitzei jaramon egiten bazaie. Izan ere, zabala da esparru honetan aurrera eramandako literatura. Autore ezberdinek, atzerritarrak autoenpleguaren eragile garrantzitsu direla erakutsi dute (Findlay et al., 2000; Levie, 2007). Bide beretik, Espainiako 50 probintzietarako egindako ikerketa batek, atzerritar kopuru handiagoa zutenek enpresa berri gehiago zituztela ondorioztatu zuen (Martinez, 2004). Ondorioz, lanerako eta enpresa berriak sortzeko propentsio handiagoa erakutsi dezaketenez neurrian, biztanleria atzerritarrak eskualdearen erresilientzia-mailan positiboki eragin dezakeela pentsatu daiteke. Gainera, atzerritar populazioaren lurralde kokapenaren arrazoi nagusienetariko bat eskulan eskaria da, atzerritarra enplegua dagoen eremura gerturatuko delarik. Errioxa Arabarra eskualdea izan daiteke honen adibide garbiena, trebakuntza berezirik behar ez duen enplegu motaren (ardo industria) eskari handia duena.
- **Kooperatiben pisua.** Kooperatibismoa agente ekonomiko eta sozialen kooperazioa defendatzen duen doktrina eta praktika sozioekonomikoa da eta EAeko zenbait eskualdeetan agerikoa da kooperatiben mugimenduaren garrantzia. Horregatik, erresilientzia-mailan eragin dezakeen faktore moduan ikusi daiteke. Kooperatiben pisua adierazteko, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailak ematen duen aldagaia erabiliko da: ekonomia sozialeko enpleguak enplegu guztiarekiko duen pisua. 2014 urteari dagokion datua da. Kasu honetan, zortzigarren taulak erakusten duen bezala, Deba Garaia eskualdeak hartuko luke baliorik handiena (%40,8) eta Enkartazioak eskualdeak txikiena (%2,9). Aldagai honen koefizientearen ikurra auresatea ez da erraza; neurri batean, anbigua izan daiteke. Batetik, kooperatiben pisua kapital sozial moduan ulertuko balitz, zeinu positiboa esperoko litzateke; ebidentzia enpirikoak lan ezberdinetan erakutsi duen moduan, orduan eta kapital sozial gehiago metatu, orduan eta erresilienteagoa lurraldea. Autore ezberdinek landu dute kapital sozial eta kooperatibismoaren arteko lotura (Mugarra, 2005; Arando et al., 2012). Ordea, jakina da kooperatibek krisiaren aurrean gainontzeko enpresek baino jarrera malguagoa erakutsi dutela enpleguari dagokionean, hainbeste kaleratze egon ez direlarik. Testuinguru honetan, kooperatibek beste estrategia batzuk erabili dituzte krisiaren aurrean, besteak beste, soldata murriztea, aurretiko erretiro edo prejubilazioak, kooperatiben arteko elkarlaguntza eta ordaindu gabeko lan ordu gehigarriak (Eusko Jaurlaritza, 2016). Hori horrela, gerta liteke koefizientearen zeinua negatiboa izatea. Enpleguari hobeto eutsi dioten neurrian, enplegu egonkorragoaren adierazle edo laguntzaile gisa ikusi daitezke.

- **Enpresa-traktoreen pisua.** Erresilientzia aztertzerako garaian, kontuan izan beharreko aspektu garrantzitsua da enpresa-egituraketarena. Aurreko atalean aldagai ezberdinak jorratu dira esparru honetan eta azpimarra egin da enpresa traktoreek eskualdeko ekonomian joka dezaketen paper ezinbestekoaz. Erruz, eredu ekonometrikoan 100 langiletik gorako enpresen ehunekoa barneratzea erabaki da.²¹ Ikusi da eskualdeen artean ezberdintasunak agerikoak direla, Deba Garaia eskualdean %1,13koa delarik gisa horretako enpresen portzentajea eta %0,08koa baino ez Enkartzioak eskualdean. Halaber, Goierri bezalako eskualde batean enpresa traktoreek jokatzen duten papera azpimarratu da lanean zehar. Gaiaren inguruan ikertu denaren bidetik, aldagai honen koefizientea positiboa izatea aurreikusten da. Hots, orduan eta pisu handiagoa izan enpresa-traktoreek, erresilientzia-mailan eragin positiboa izatea espero da. Testuinguru honetan, berriki aurrera eramandako ikerketa batek, Espainiako enpresak kontuan izan dituen, kalitatearen eta enpresaren tamainaren artean erlazio positiboa dagoela ondorioztatu du (ikus Arribas et al., 2016).²² Halaber, enpresa tamainaren eragina garrantzitsua dela erakusten du kluster kontzeptuak, tamaina txikiaren desabantailak ekiditeko pentsatua dagoena, besteak beste.
- **Perturbazioarekiko hasierako erantzuna.** Erresilientzia kontzeptuaren adiera teorikoa eztabaidatu denean, erresistentziaren ideia azpimarratu da, hau da, shock edo perturbazioari aurre egiteko edo eusteko gaitasuna. Testuinguru horretan, interesgarria gerta dakiguke lehen urteetan eskualde horrek hartzen duen norabidea zein den erreparatzea. Hala, aldagai endogenoaren lag edo atzerapen moduan ikusi daitekeen hurrengo aldagaia barneratuko da erudian: 2008 urtetik 2012 urtera bitarteko enplegu aldakuntza. Perturbazioarekiko hasierako erantzuna eta norabidea positiboa izan bada (enplegua sortu egin da edo oso gutxi suntsitu da), ondorengo urteetan norabide berean jarraitzea espero da, eta alderantziz, lehen urteetan norabide kaxkarra hartu duen eskualdeak (perturbazioaren eragina nabaritu eta enplegu asko suntsitu da), norabide hori zuzentzea zailagoa izango duela pentsatu daiteke. Histeresiaren kontzeptua erabili ohi da lan-merkatuaren esparruan, behin langabezia handituta, berau murriztea zailagoa dela argudiatzeko (Franz, 1990). Laburbilduz, hasierako erantzun horrek ondorengo urteetako bilakaera edo dinamika baldintzatu dezake, hasieratik shockarekiko ondo moldatu den eskualdea, ondo moldatzen arituko delarik ondoren ere. Hori dela eta, aldagai honen koefizientea positiboa izatea espero da.

²¹Kasu honetan, tamainaren irizpidea baino ez da kontuan izan, jakitun izanik enpresa-traktoreak beste ezaugarri batzuk ere bete behar dituela, eskualdeko ekonomian eragitea, esaterako. Ordea, zaila da eskualde bakoitzerako enpresa traktore guztiak identifikatzea eta ondorioz, tamainaren irizpideak helburura hobekien gerturazten lagunduko duela pentsatu da.

²²Bide beretik, Luis de Guindos Espainiako Ekonomia eta Lehiakortasun ministroak orain gutxi hala adierazi zuen: «Espainiako enpresek Europar Batasuneko enpresen batez besteko tamaina balute, BPGak 3,5 puntu portzentualeko saltoa egingo luke, eta Britainia Handiko batezbestekoa izatekotan, ekonomia 7,5 puntutan haziko litzateke».

- **Araba eskualdea.** Orain arte aipatutako aldagaiekin estimatutako erudian, hainbat eskualde muturreko daudela ikusi da (outliers moduan ezagunak), oro har EAeko eskualdeek jarraitzen duten portaera nagusitik aldentzen direnak. Eranskinean bildu da eredu horretatik lortutako benetako eta estimatutako aldagai endogenoaren grafikoa (ikus 8.6.2 puntua). Bertan ikusi daiteke Arabako 6 eskualdeetatik 5 eskualde ageri direla dinamika orokor horretatik kanpo (Arabako Mendialdea salbuespen delarik). Gainera, lanean zehar agerian geratu da jorratutako aspektu garrantzitsu batzuetan Arabako eskualdeek portaera ezberdina aurkezten dutela Gipuzkoa eta Bizkaiarekin alderatuta (ikus ekonomia-egitura eta garapen agentziak atalak). Guzti honengatik, Arabako eskualdeak dummy modura espezifikatu dira, eskualdea Araban badago, 1 balioa hartuko duelarik eta 0 bestela. Puntu honetan, ezin da aurreikusi koefizientearen zeinua; alabaina, aldagai hau esanguratsua izatea espero da.

Taula 8. **Hautatutako aldagaien estatistiko deskribatzaileak**

Aldagaia	Deskribapena	Batez bestekoa	Desbideratze estandarra	Minimoa	Maximoa
Enpleguaren aldakuntza	Enpleguaren aldakuntza 2014 eta 2016 urteen artean.	0,0047	0,0303	-0,0522	0,0708
Lehen sektoreko biztanleria	Nekazaritza eta arrantza sektoreetan okupatutako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren ehunekoa (2016ko datua)	0,0441	0,0533	0,0081	0,2205
Biztanleria atzerritarra	Biztanleria atzerritarren ehunekoa (2016ko datua)	0,0625	0,0150	0,0396	0,0981
Kooperatiben pisua	Ekonomia sozialeko enpleguak enplegu guztiarekiko duen pisua (2014ko datua)	0,0768	0,0827	0,0290	0,4080
Enpresa-traktoreen pisua	100 langile baino gehiago dituen enpresen ehunekoa (2016ko datua)	0,0049	0,0023	0,0007	0,0113
Perturbazioarekiko hasierako erantzuna	Enpleguaren aldakuntza 2008 eta 2012 urteen artean.	-0,0340	0,0817	-0,1304	0,1997
Araba eskualdea	Dummy aldagaia. 1 balioa hartzen du eskualdea Araban badago.	0,3	0,4701	0	1
Behaketak	EAeko eskualdeak guztira		20		

Iturria: norberak egina Eustat, Udalmap eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko datuetatik abiatuta.

5.2 Eredu ekonometrikoa

Aipatutako faktoreek, EAEko 20 eskualdeak kontuan izanik, erresilientzia-mailan daukaten esanguratasun eta inpaktua aztertzeko, Karratu Txikiaren Arruntetako estimatzailea (OLS ingelesezko siglen arabera) erabiliko da.²³ Autore ezberdinek erabili izan dute metodo ekonometriko hau faktore ezberdinek hazkunde ekonomikoarengan daukaten eragina kuantifikatu eta aztertzeko (esaterako, Milbourne et al., 2003; Tsai et al., 2010). Aipatutako aldagaietatik abiatuta, ondorengo eredua estimatuko da²⁴:

$$\begin{aligned} \text{Enpleguaren aldakuntza}_j &= \widehat{\beta}_0 + \widehat{\beta}_1 \cdot \text{lehen sektoreko biztanleria}_j \\ &+ \widehat{\beta}_2 \cdot \text{biztanleria atzerritarra}_j + \widehat{\beta}_3 \cdot \text{kooperatiben pisua}_j \\ &+ \widehat{\beta}_4 \cdot \text{enpresa traktoreen pisua}_j + \widehat{\beta}_5 \cdot \text{hasierako erantzuna}_j \\ &+ \widehat{\beta}_6 \cdot \text{Araba eskualdea}_j + \varepsilon_j \end{aligned}$$

$$\widehat{\beta}_0 = \text{konstantea}$$

$$\widehat{\beta}_n = n \text{ aldagaientzat estimatua izango den parametroen bektorea}$$

$$\varepsilon_j = j \text{ behaketentzat errorea}$$

5.3 Emaitzak

EAEko eskualdeetarako, erresilientzia-mailan eragiten duten faktoreen inpaktua biltzen du ondorengo taulak²⁵ (Taula 9), estimatu den eredu ekonometrikoko emaitzetatik abiatuta.²⁶

Batetik, enpresa-tractoreen pisuaren garrantzia berresten da. Lortutako koefizientearen balioaren arabera, enpleguaren aldakuntzarekiko eragin oso positiboa daukala ondorioztatu daiteke. Hala, eskualdeko enpresa handi hauek tokian tokiko ekonomiaren bilakaera eta dinamikan jokatzeko duten papera mahaiaren gainean jarri da. Honek ez du esan nahi eskualde batean enpresa guztiak 100 langiletik gorakoak eta mundu mailan liderrak izan behar direnik, baina enpresa gutxi hauek daukaten garrantzia azpimarratzen da. Oro har, EAEko enpresa gehienak (%99 inguru) enpresa txiki eta ertainak dira, baina gainontzeko %1 horien beharra daukate askok bizirauteko. Eskualde dinamikoetan, enpresa-tractoreek ondo eutsi diote krisiaren inpaktuari (salbuespen batzuk tarteko, Deba Garaian Fagor Etxetresnaken krisia, esaterako), eta horrek eskualdearen erresilientzia-mailan eragin du, neurri batean krisiaren ondorioak apalagoak izatera iritsi arte.

²³Horretarako, Gretl programa estatistikoa erabili da.

²⁴Arestian aipatu da erresilientzia kontzeptuaren inguruko adiera teorikoak ez ezik, honen aplikazio praktikoak ere sortu duela eztabaida. Eskualdeen ezaugarrien eraginak kontuan hartzen direlarik, ez dago onespren osoa duen eredurik, tokian tokiko ezaugarri ezberdinetara egokitu beharko lukeelako ereduak. Ondorioz, eskualde batzuentzat proposatutako ereduak, beste erregio edo lurralde-eremu batzuentzat balio ez izatea gerta liteke.

²⁵Helburu nagusia erresilientzia eragiten duten aldagaiak identifikatzea izanik, estimatutako ereduaren emaitzak aztertzerakoan aldagaien ikurretan (eraginaren norabidea) jarriko da arreta eta ez hainbeste hauen koefizienteen balio eta elastikotasunean.

²⁶Eredu ekonometrikoa estimatu ostean, hainbat kontraste burutu dira eredua ondo zehaztuta dagoela ikustatzeko. Batetik, Breush-Pagan eta Whiten kontrasteak burutu dira, ereduaren heterozedastizitate arazoak baztertuz. Bestetik, Ramseyren Reset kontrastea ere burutu da, erregresio lineala ondo definitua dagoela berretsiz. Jarraian, errorearen normaltasunaren kontrastea ere egin da, erroreak banaketa normala jarraitzen duenaren hipotesi hutsa ezin delarik baztertu. Azkenik, kolinealitate arazorik ez dagoela ere frogatu da.

Bigarrenik, kooperatiben pisuari dagokionean, koefizientearen ikur negatiboa lortu da. Hori dela eta, arestian aipatutako hipotesia onartu daiteke, enpleguari hobeto eutsi dioten heinean, enplegu egonkorragoaren adierazle moduan ikusi daitezkeela kooperatibak. Beste autore batzuek defendatu dutenarekin bat etorriko litzateke. Besteak beste, Muruak argudiatzen du «honelako enpresetan bestelakoetan baino gehiago, enplegua mantentzea lehenetsi da bestelako sakrifizioak egin behar izan arren, eta gainera, aurreko krisialdian ere gauza bera egin zuten kooperatibek» (Eustat, 2012). Bide beretik, beste zenbait autorek kooperatiba mugimenduaren konpromiso soziala goraiatu dute, enplegu suntsiketaren aurrean beste neurri eta irtenbide batzuk lehenetsi dituztelarik (Elortza et al., 2012).

Lehen sektoreko biztanleriaren pisuari dagokionean, koefizientearen zeinu positiboa eskuratu da, hasiera batean espero zenaren aurkakoa. Hala, lehen sektorean pisu handiagoa duten eskualdeek krisia hobeto lehiatu dutela ondoriozta genezake, ikerketa batzuetan argudiatu dutenarekin bat etorritik (ikus Zamora et al., 2014). Hala ere, aldagaia esanguratsua ez dela lortu da, eta ondorioz, EAeko eskualdeen azterketarako, badirudi ez duela erresilientzia-maila ezberdinak azaltzeko balio.

Taula 9. **KTA bidez estimazioa. Lortutako emaitzak.**

Aldagai dependentea: enpleguaren aldakuntza 2014-2016.

Aldagaia	Koefizientea
Konstantea	-0,070 *** (5,427)
Lehen sektoreko biztanleria	0,139 (1,293)
Biztanleria atzerritarra	1,285 *** (6,229)
Kooperatiben pisua	-0,208 *** (3,549)
Enpresa-traktoreen pisua	4,561 * (2,057)
Hasierako erantzuna	0,195 *** (3,837)
Araba eskualdea	-0,037 *** (3,195)
R ²	0,9018
F estatistikoa	19,90
p balioa	0,0000

Oharrak: parentesiko balioek t estatistikoari erantzuten diote, balio absolututan. Behaketa kopurua 20 da.

*, **, *** ikurrek esanguratasun maila adierazten dute, %10, %5 eta %1 balioetarako, hurrenez hurren.

Bestetik, biztanleria atzerritarren presentzia handiago batek eskualdearen erresilientzia-maila altuagoa adierazten duela berretsi da. Lehen adierazi moduan, bi irakurketa izan ditzake honek. Alde batetik, hazkunde ekonomikoaren eta immigrazioaren arteko lotura aztertzen duten eredu teorikoei, orokorrean atzerritarra soldata-maila altuena dagoen herrialdera mugituko dela aurreikusten dute. Egungo egoerara ekarrita, atzerritarra enplegua sortzen ari den edo ekonomiak egoera dinamiko eta oparoa duen eskualdera iritsiko da. Bestetik, biztanleria atzerritarrak lanerako propentsio handia erakusten du, autoenplegua sustatuz eta eskulan eskaintzari berehalako erantzuna emanez. Bide honetan, hainbat ikerketak ondorioztatu du etorkinen eta hazkunde ekonomikoaren erlazio esanguratsu eta positiboa (Barro et al., 1992), eta ideia berdinari eutsiko lioke lortutako emaitzak. Halaber, berriki argitaratutako immigrazioa eta ekintzailetzaren inguruko ikerketa batek, antzeko ondorioak atera ditu argitara. Batetik, atzerritarrak enplegu aukera handiagoa eta bizitza hobeko bat garatzeko aukera emango dion eremu geografiko bat hautatuko du. Bestetik, eremu horretako garapen ekonomikoari mesede egin diezaioke, hein batean, emakumearen lan-merkatuaz handiago bat ahalbidetzen duelako (Murua et al., 2016).

Perturbazioarekiko (kasu honetan, krisi ekonomikoarekiko) lehen erantzunak eskualdeko erresilientzia-mailan eragingo duela konfirmatzen du lortutako emaitzak. Hain zuzen ere, hasierako urteetan hartutako norabideak, hurrengo urteetako bilakaera eta norabidea baldintzatuko du, erlazio positibo batean. Hau da, lehen aipatu gisa, 2008-2012 epealdian norabide zuzena hartu duen eskualdeak, oro har, norabide egokian jarraituko du 2014-2016 epealdian ere. Beste modu batera esanda, hasieran (2008-2012 epean) erresistentzia gehiago erakutsi zuen eskualdeak, erresilientzia-maila altuagoa erakutsiko du ondoren. Guzti honek, ekonomia modu dinamiko batean aztertzearen garrantzia azpimarratzen du.

Azkenik, Arabako eskualdeentzat sortutako dummy aldagaia esanguratsua dela lortu da. Ondorioz, eredu ekonometrikoak baieztatu egin du outlier batzuen portaerari jarraituz hartutako erabakia zuzena izan dela. Hau da, Arabako eskualdeek, Gipuzkoa eta Bizkaiko eskualdeekin alderatuta, beste portaera bat jarraitzen dute, eta ondorioz, gerta liteke beste aldagai batzuk kontuan hartu behar izatea Arabako eskualdeen analisirako.

6 Ondorioak

Eskualde guztiek ez dute krisiaren eragina bortizkeri eta gogortasun berdinean jasan; horregatik, ingurune makroekonomikoa ia berdina izan arren, eskualde batzuk sendotasun eta erreazio gaitasun handiagoa erakutsi dute (erresilientzia maila handiagoa), beste eskualde batzuk zaugarritasun maila handiagoa izan duten bitartean.

Hasieran aipatu da analisi ekonomiko konbentzionalak tokian tokiko errealitate ezberdinak kontuan hartzen ez dituela. Hala, planteamendu orokorragoetan ez da tokian tokiko bilakaera eta eskualde barneko faktoreei soilik lotuak dauden portaeren eragina barneratzen. Lan honetan aurrera eramandako ikerketak, EAEko eskualdeen arteko disparekotasunak agerian utzi ditu eta garapen ekonomikoa (enpleguaren aldakuntza moduan ulertua) suspertu edo oztopatu dezaketen barneko indar eta gabeziak zeintzuk diren jakitea ahalbidetu du.

Eskualderik dinamikoenak historikoki eskualde industrialak izan dira eta mundu mailan lehiatzen duten enpresak barnebiltzen ditu. Lidergo eta garrantzia handiko enpresak dira hauek, enpresa-traktore deituak, eskualde horretako gainontzeko enpresa ertain eta txikien trakzio lanak burutzen dituzten heinean. Erresilientziaren esparruan enpresa-traktore hauek joka dezaketen papera azpimarratu da lan honetan eta gainera, EAEko eskualdeentzat aurrera eramandako eredu ekonometrikoak erakutsi du gisa honetako enpresa hauen esanguratasuna eta pisua; eskualde batean enpresa-traktoreen pisua nabarmena denean, erresilientzia-mailan eragin positiboa izango duelarik. Era berean, eskualde dinamikoenak ingurune instituzional eraginkor baten onuradun dira, eskualdeko enpresa eta egitura ekonomikoari hertsiki lotuak dauden Lanbide Heziketa zentro eta unibertsitatez hornitzen baitira. Honek, tokian tokiko behar ezberdinetara iristea ahalbidetzen du, eskualdeko enpresek eskatzen duten horretara iristea erraztuz eta neurri batean, behar berrietara egokituz.

Zahartze demografikoa presente dago EAEko eskualde guztietan. Arazo horri aurre egiteko gakoetako bat biztanleria atzerritarren baitan aurkitu daiteke. EAEn atzerritarren etorrerak prozesu berantiarago bati erantzuten dion arren, hainbat eskualdeetan presentzia nabarmenagoa dute, arrazoi ezberdinak tarteko. Halaber, eredu ekonometrikotik lortutako emaitzei jarraiki, hauen presentziak eskualdeko erresilientzia-mailan positiboki eragiten duela ondorioztatu da, eskulan eskaria handia den eskualdea hautatuko duelarik atzerritarrak.

Erresilientziaren adiera teorikoa eztabaidatu denean, dimentsio ezberdinak kontuan hartzearen garrantzia azpimarratu da. Dimentsio horietan lehenak, perturbazioarekiko lehen erantzun edo norabideari erantzuten dio (erresistentzia), eta EAEko eskualdeentzat diseinatutako eredu ekonometrikoak berretsi du, lehen urteetan norabide egokia hartu duen eskualdeak, norabide horri eusteko gaitasunarekin bat, portaera erresilienteagoa erakutsiko duela ondorengo urteetan ere.

Garapen Agentziek tokiko eragile eta erakunde ezberdinen arteko funtzio katalizatzaile garrantzitsua jokatzeko dute, eskualdeko kapital soziala aberasten duen ingurunea bultzatuz eta tokiko gobernantza eraginkorrago bati mesede eginez. Halaber, eskualdeko garapen sozioekonomikoaren sustatzaile nagusi bilakatu daitezke. Horren erakusle gisa aurkeztu dira Goieki Goierriko Garapen Agentzia eta Lea Artibaikoa, Azaro Fundazioarekin bat. Garapen agentziak, orainaldian ez ezik, etorkizunean paper garrantzitsua jokatzera deituak daude, eta horren adibiderik garbiena berriki Gipuzkoako Garapen Agentzien eta Aldundiaren arteko hitzarmena da. 2021 urtera arte egongo da indarrean eta ekonomia sustapenerako gobernantza eredu berri bat garatzea du helburu.

Lan honetan aurkeztutako ikerketak, historia, hizkuntza eta kultura bera partekatzen duen eremu geografiko bateko erresilientzia ekonomikoaren azterketari erantzun dio; alegia, Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten 20 eskualdeen azterketa ekonomiko-ekonometriko bati. Análisi deskriptiboa burutzeko erabilitako aldagaiek, erresilientzia ekonomikoaren esparruko planteamendu teorikoei jarraitu badiete ere, tokian tokiko ezaugarri eta berezitasunak kontuan hartu dira, eta horrek, ikerketa testuinguru partikular eta konkretu batetara egokitzea eskatzen du. Hots, lan honetan proposatutako eredu ekonometrikoak, EAEko errealitate ekonomikoari erantzun nahi izan dio, eta ondorioz, beste erregio edo lurralde-eremu batzuentzat balio ez izatea gerta liteke.

ESKER ONAK

Azken hilabeteetako lan gogorraren emaitza izan da guztia. Baina, bidean ez naiz bakarrik izan. Lan honen zati bat euren ere bada, eta ezin dut lana bukatutzat eman, labur bada ere, horietako bakoitzari aipamen txiki bat egin gabe.

Berriro ere, eskerrak Juan Ramoni. Batera egin dugun bide honetan, artzain ezin hobea izan zara. Aurrerantzean ere, bide berrietan eskutik izango nauzu.

Mila esker Amagoia, aholkulari bikaina izan zara. Lanaren txukuntasuna eta garbitasuna zure kontu joan dira. Irakasle ona ez ezik, lagun aparta zara.

Etxekoak ere hor zaudete. Ezin denak aipatu, baina ama, aita eta arrebaren baimenarekin, bi izen idatzita utzi nahi ditut: Marian eta Fidel. Por mucho que me esfuere, no voy a encontrar la manera de agradecer todo lo que estáis haciendo por mí. Os ha tocado aguantarme todo este rato, pero lo habéis disimulado muy bien. Eskerrik asko!!

7 Erreferentziak

Abiad, A., Bluedorn, J., Guajardo, J., eta Topalova, P. (2015). The rising resilience of emerging market and developing economies. *World Development*.

Arando, S., Gago, M., Freundlich, F., eta Ugarte, L. (2012). Capital social y cooperativismo. *Projectics/Proy ctica/Projectique*, (2), 41-54 orr.

Arribas, E. H., Olaverri, C. G., eta Galdeano, L. G. (2016). El tama o de las empresas y la calidad del recurso empresarial:  causa o efecto?. *Ekonomiaz*. Revista vasca de Econom a, 90(02), 30-53 orr.

Arriola, J., Gil, C. G., eta Uriarte, X. A. (2008). El impacto econ mico de la inmigraci n extracomunitaria en la Comunidad Aut noma del Pa s Vasco. *Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia*.

Barro, R. J., eta Sala-i-Martin, X. (1992). Regional growth and migration: a Japan-US comparison. *National Bureau of Economic Research*. Working Paper.

Basurko, A. (2005). El capital social: caso Lea Artibai. *Ekonomiaz*. 2(59), 260-283 orr.

Berkes, F. (2002). Cross-scale institutional linkages: perspectives from the bottom up. 9 *kapitulua*. Ostrom, E; Dietz, T.; Dolsak, N; Stern, P.C.; Stonach, S. eta Webber, E.U.: The Drama of the Commons, 293-321 orr. National Academy Press, Washington, DC.

Briguglio, L., Cordina, G., Farrugia, N., eta Vella, S. (2009). Economic vulnerability and resilience: concepts and measurements. *Oxford development studies*, 37(3), 229-247 orr.

Bristow, G. (2010). Resilient regions: re-‘place’ing regional competitiveness. *Cambridge Journal of Regions, Economy and Society*, 153-167 orr.

Cellini, R., eta Torrissi, G. (2014). Regional resilience in Italy: a very long-run analysis. *Regional Studies*, 48(11), 1779-1796 orr.

Courvisanos, J., Jain, A., eta K. Mardaneh, K. (2016). Economic resilience of regions under crises: a study of the Australian economy. *Regional Studies*, 50(4), 629-643 orr.

Davies, S. (2011). Regional resilience in the 2008–2010 downturn: comparative evidence from European countries. *Cambridge Journal of Regions, Economy and Society*, 369-382 orr.

Dapena, A. D., Moroll n, F. R., eta Araya, D. P. (2017). Are there different local patterns of convergence concealed beneath the regional level? An analysis for US states and counties using a multilevel approach. *The Annals of Regional Science*, 58(3), 623-640 orr.

Egu a, B., Murua, J.R., Aldaz, L. eta Astorkiza, I. (2013). La poblaci n inmigrante en las zonas rurales del Pa s Vasco. *Separata ITEA*, 109 (2), 215-238 orr.

Elortza, N., Alzola, I., eta L pez, U. (2012). La gesti n de la crisis en la Corporaci n Mondragon. *Ekonomiaz*, 79(01), 59-82 orr.

Estensoro, M., eta Larrea, M. (2015). Hacia un nuevo modelo de desarrollo territorial: el reto de reaprender formas de trabajo. *Papeles del Pacto Industrial*, (2).

Eusko Jaurlaritza (2016). Estadística de la Economía Social 2014 y avance 2015. *Órgano Estadístico Específico del Departamento de Empleo y Políticas Sociales en colaboración con Ikertalde*. 2016ko apirila.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea (2014). Desequilibrios territoriales en la CAPV en el marco de la crisis económica. *Estudios e informes del CES*.

Eustat, Euskal Estatistika Erakundea (2012). Euskal AEko Txosten Sozioekonomikoa 2012. 9. kapitulua: Ekonomia. 311-336 orr.

Findlay, A. M., Short, D., eta Stockdale, A. (2000). The labour-market impact of migration to rural areas. *Applied Geography*, 20(4), 333-348 orr.

Foster, K. A. (2007). A Case Study Approach to Understanding Regional Resilience. *Institute of Urban & Regional Development*.

Franz, W. (1990). Hysteresis in economic relationships: an overview. *Hysteresis effects in economic models*. Physica-Verlag HD. 1-19 orr.

Gil Álvarez, E. (2014). El País Vasco y su capacidad diferencial de resistencia a la crisis. *Geografía de la crisis económica en España* (koordinatzaileak J.M. Albertos eta J.L. Sánchez), 497-538 orr.

Gottlieb, P. D., eta Fogarty, M. (2003). Educational attainment and metropolitan growth. *Economic Development Quarterly*, 17(4), 325-336 orr.

Harrison, B., Kelley, M. R., eta Gant, J. (1996). Specialization versus diversity in local economies: The implications for innovative private-sector behavior. *Cityscape*, 61-93 orr.

Hassink, R. (2010). Regional resilience: a promising concept to explain differences in regional economic adaptability?. *Cambridge journal of regions, economy and society*, 3(1), 45-58 orr.

Hausmann, R., Hidalgo, C. A., Bustos, S., Coscia, M., Simoes, A., & Yildirim, M. A. (2014). *The atlas of economic complexity: Mapping paths to prosperity*. Mit Press.

Hazi, Lea-Artibaiko Ekonomia Aldizkaria (2008). Ainara Basurkori egindako elkarrizketa, 10 zenbakia, 6-7 orr.

Hill, E., Wial, H., eta Wolman, H. (2008). *Exploring regional economic resilience* (No. 2008, 04). Working Paper, Institute of Urban and Regional Development.

Hill, E., St Clair, T., Wial, H., Wolman, H., Atkins, P., Blumenthal, P., Ficenc, S., eta Friedhoff, A. (2012). Economic shocks and regional economic resilience. *Building resilient regions: Urban and regional policy and its effects*, 4, 193-274 orr.

Holling, C. S. (1973). Resilience and stability of ecological systems. *Annual review of ecology and systematics*, 4(1), 1-23 orr.

IDEPA, Instituto de Desarrollo Económico del Principado de Asturias (2015). Estudio de investigación sobre las empresas tractoras de Asturias. *Departamento de Administración de Empresas*. Oviedoko Unibertsitatea.

Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokia (2016). Inmigración de origen extranjero en comarcas de la CAE 2015. *Panorámica de la inmigración*. 63. zenbakia.

Informe Laboral Euskadi (2017). De la Rica, S., Demel, S., eta Miller, L. *Unidad de Formación e Investigación Bets*, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.

Kapanaga, A. A. (2015). El impacto de la crisis de Fagor en el cooperativismo vasco. *Boletín de la Asociación Internacional de Derecho Cooperativo*, (49), 321-338 orr., Deustuko Unibertsitatea.

Lee, N. (2014). Grim down South? The determinants of unemployment increases in British cities in the 2008–2009 recession. *Regional Studies*, 48(11), 1761-1778 orr.

Levie, J. (2007). Immigration, in-migration, ethnicity and entrepreneurship in the United Kingdom. *Small Business Economics*, 28(2), 143-169 orr.

Martínez, J. A. B. (2004). Una aproximación inicial al papel del mercado de trabajo, la inmigración y la conflictividad socio-laboral como factores explicativos de la creación de empresas. *Estudios de Economía Aplicada*, 22(1), 67-82 orr.

Martin, R. (2012). Regional economic resilience, hysteresis and recessionary shocks. *Journal of economic geography*, 12(1), 1-32 orr.

Martin, R., eta Sunley, P. (2014). On the notion of regional economic resilience: conceptualization and explanation. *Journal of Economic Geography*.

Méndez, R., Abad, L. D., eta Echaves, C. (2015). Atlas de la crisis. Impactos socioeconómicos y territorios vulnerables en España. *Investigaciones Regionales*, (31), 208.

Milbourne, R., Otto, G., eta Voss, G. (2003). Public investment and economic growth. *Applied Economics*, 35 (5), 527-540 orr.

Mugarra Elorriaga, A. (2005). Capital social y cooperativas: la experiencia en el país vasco. *Ekonomiaz: Revista vasca de economía*, (59), 306-329 orr.

Murua, J.R., eta Ferrero, A. (2015). Claves del comportamiento diferencial de las Comarcas del País Vasco en la crisis. *International Conference on Regional Science*, UPV/EHU.

Murua-Múgica, J. R., eta Eguía-Peña, B. (2016). Inmigración y emprendimiento rural: ejes de innovación de las políticas de desarrollo rural. *Separata ITEA*, 112 (4), 438-457 orr.

Navarro, M. eta Larrea, M. (2007). Indicadores y análisis de competitividad local en el País Vasco. *Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco*.

Navarro-Espigares, J. L., Martín-Segura, J. A., eta Hernández-Torres, E. (2012). The role of the service sector in regional economic resilience. *The Service Industries Journal*, 32(4), 571-590 orr.

Norris, F. H., Stevens, S. P., Pfefferbaum, B., Wyche, K. F., eta Pfefferbaum, R. L. (2008). Community resilience as a metaphor, theory, set of capacities, and strategy for disaster readiness. *American journal of community psychology*, 41(1-2), 127-150 orr.

Orkestra (2015). Informe de competitividad del País Vasco 2015: Transformación productiva en la práctica. *Fundación Deusto*. Deustuko Unibertsitatea.

Ormerod, P. (2010). Resilience after localeconomic shocks. *Applied Economics Letters*, 17(5), 503-507 orr.

Phelps, E. S. (2008). Dynamism and Inclusion: What? Why? How?. *Center on Capitalism and Society*. CCS Working Paper, 25 zenbakia, Columbia University.

Pike, A., Dawley, S., eta Tomaney, J. (2010). Resilience, adaptation and adaptability. *Cambridge Journal of Regions, Economy and Society*, 3, 59-79 orr.

Porter, M. E. (1990). The competitive advantage of nations. *Harvard Business Review*.

Rosell Foxà, J., Viladomiu, L., eta Mancilla Mancilla, C. A. (2011). Resiliencia, territorios y empleo: el caso de las comarcas catalanas. Working paper. *Universitat Autònoma de Barcelona*.

Scott, M. (2013). Resilience: a conceptual lens for rural studies?. *Geography Compass*, 7(9), 597-610 orr.

Serrano, F., Eguía, B., Ferreiro, J., Zarzuelo, J. M., eta Albizuri, M. J. (2008). Impacto de la inmigración en la viabilidad y sostenibilidad del sistema. Efecto en diferentes horizontes temporales: El envejecimiento de los inmigrantes actuales. Informe final. *Madrid, Ministry of Labour and Immigration*.

Simmie, J., eta Martin, R. (2010). The economic resilience of regions: towards an evolutionary approach. *Cambridge journal of regions, Economy and Society*, 3(1), 27-43 orr.

Storper, M. (2013). Keys to the city: How economics, institutions, social interaction, and politics shape development. *Princeton University Press*.

Tsai, C. L., Hung, M. C., eta Harriott, K. (2010). Human capital composition and economic growth. *Social Indicators Research*, 99 (1), 41-59 orr.

Uranga, J. A., Querejeta, M. J. A., eta Ruiz, A. M. G. (2007). Análisis de la competitividad en las provincias de la CAPV. *Asociación Española de Ciencia Regional*. XXXIII Reunión de Estudios Regionales.

Zamora, P. S., Cobosa, R. G., eta Delgado, F. C. (2014). El medio rural andaluz frente a la crisis económica: un análisis de los factores de resiliencia territorial. *Economía Agraria y Recursos Naturales-Agricultural and Resource Economics*, 14(1), 27-56 orr.

Zubiaurre Goena, A., Zabala Berriozabal, K., eta Larrea Aranguren, M. (2009). Capacidad de innovación local: una tipología para las comarcas vascas. *Ekonomiaz*, 1(70), 282-303 orr.

8 Eranskina

8.1 Eskualdeen sailkapen ezberdinak (EUSTAT, Eusko Jaurlaritzza)

Lurralde Historikoak	Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila		EUSTAT	
	Eskualdeak	Azpi-eskualdeak		
Araba	1) Vitoria-Gasteiz	Vitoria-Gasteiz	1) Arabako Lautada	
		Arabako Lautada		
		Arabako Mendialdea	2) Arabako Mendialdea	
		Arabako Ibarrek	3) Arabako Ibarrek	
	2) Ayala	Errioxa Arabarra	4) Errioxa Arabarra	
		Laudio	5) Kantauri Arabarra	
Kantauri Arabarra				
Gorbeia Inguruak	6) Gorbeia Inguruak			
Bizkaia	3) Eskuinaldea	Getxo	7) Bilbo Handia	
		Leioa		
		Erandio		
		Eskuinaldea (gainontzekoa)		
	4) Bilbo	Bilbo		
	5) Ezkerraldea	Barakaldo		
		Basauri		
		Galdakao		
		Portugalete		
		Santurtzi		
		Sestao		
	Ezkerraldea (gainontzekoa)			
	6) Bizkaia Kosta	Enkartazioak		8) Enkartazioak
		Plentzia-Mungia		9) Plentzia-Mungia
Gernika-Bermeo		10) Gernika-Bermeo		
7) Durangaldea	Markina-Ondarroa	11) Markina-Ondarroa		
	Durango	12) Durangaldea		
	Durangaldea (gainontzekoa)			
	Arratia-Nerbioi	13) Arratia-Nerbioi		
Gipuzkoa	8) Donostialdea	Zarautz	14) Urola Kostaldea	
		Urola Kosta (gainontzekoa)		
		Donostia	15) Donostialdea	
		Errenteria		
		Donostialdea (gainontzekoa)		
	Hondarribia	16) Bidasoa Beherea		
	Irun			
	9) Tolosa-Goierrri	Tolosaldea	17) Tolosaldea	
		Goierrri	18) Goierrri	
	10) Deba Garaia	Arrasate-Mondragon	19) Deba Garaia	
		Deba Garaia (gainontzekoa)		
11) Deba Beherea	Eibar	20) Deba Beherea		
	Deba Beherea (gainontzekoa)			

EAEko eskuadeen sailkapen nagusiak, EUSTAT erakundeak eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak burututakoak. Iturria: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, 2014.

8.2 Udalerriak eskualdeka

8.2.1 Araba


- **Arabako Ibarrak:** Añana, Armiñon, Berantevilla, Kuartango, Lantarón, Erriberagoitia, Erribera Beitia, Gaubea eta Zambrana.
- **Arabako Lautada:** Alegria-Dulantzi, Arrazua-Ubarrundia, Asparrena, Barrundia, Burgelu, Iruña Oka, Iruraiz-Gauna, Agurain, Donemiliaga, Vitoria-Gasteiz eta Zaldundo.
- **Arabako Mendialdea:** Arraia-Maeztu, Bernedo, Kanpezu, Harana, Lagrán eta Peñacerrada-Urizaharra.
- **Errioxa Arabarra:** Mañueta, Elciego, Bilar, Kripan, Bastida, Laguardia, Lantziego, Lapuebla de Labarca, Leza, Moreda de Álava, Navaridas, Oion, Samaniego, Eskuernaga eta Iekora.
- **Gorbeia Inguruak:** Aramaio, Legutiano, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia.
- **Kantauri Arabarra:** Amurrio, Artziniega, Aiara, Llodio eta Okondo.

8.2.2 Bizkaia

- **Arratia Nerbioi:** Arakaldo, Arantzazu, Areatza, Arrankudiaga, Artea, Dima, Igorre, Orozko, Otxandio, Ubide, Ugao-Miraballes, Orduña, Zeanuri eta Zeberio.
- **Bilbo Handia:** Abanto Zierbena, Alonsotegi, Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri, Berango, Bilbo, Derio, Erandio, Etxebarri, Galdakao, Getxo, Larrabetzu, Leioa, Lezama, Loiu, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sondika, Trapagaran, Zamudio, Zaratamo eta Zierbena.
- **Durungaldea:** Abadiño, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Bedia, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Garai, Iurreta, Izurtza, Lemoa, Mallabia, Mañaria eta Zaldibar.
- **Enkartazioak:** Artzentales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Güeñes, Karrantza Harana, Lanestosa, Sopuerta, Trucios-Turtzioz eta Zalla.
- **Gernika-Bermeo:** Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gaategiz-Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz eta Sukarrieta.
- **Markina-Ondarroa:** Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz, Ondarroa eta Ziortza-Bolibar.
- **Plentzia-Mungia:** Arrieta, Bakio, Barrika, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Gorliz, Laukiz, Lemoiz, Maruri-Jatabe, Meñaka, Mungia, Plentzia, Sopelana eta Urduliz.

8.2.3 Gipuzkoa

- **Bidasoa Beherea:** Hondarribia eta Irun.
- **Deba Beherea:** Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Soraluze-Placencia de las Armas.
- **Deba Garaia:** Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñati.
- **Donostialdea:** Andoain, Astigarraga, Donostia-San Sebastian, Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbil.
- **Goierri:** Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga.
- **Tolosaldea:** Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil.
- **Urola-Kostaldea:** Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orrio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia.




Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeak.

8.3 Erabilitako aldagaiak

Aldagaiak	Azken urtea	Iturria
EGITURA EKONOMIKOA		
Lehen sektorean okupatutako 16 urte edo gehiagoko biztanleria (%)	2016	Eustat
Industria sektorean okupatutako 16 urte edo gehiagoko biztanleria (%)	2016	Eustat
Zerbitzuen sektorean okupatutako 16 urte edo gehiagoko biztanleria (%)	2016	Eustat
Lehen sektoreko Balio Erantsi Gordina (%)	2012	Eustat
Industria sektoreko Balio Erantsi Gordina (%)	2012	Eustat
Zerbitzuen sektoreko Balio Erantsi Gordina (%)	2012	Eustat
ENPRESA EGITURAKETA		
Lehen sektoreko establezimenduak guztiekiko (%)	2016	Eustat
Industriako establezimenduak guztiekiko (%)	2016	Eustat
Zerbitzuetako establezimenduak guztiekiko (%)	2016	Eustat
Industria establezimenduetan batez besteko langile kopurua	2015	Eustat
100 langiletik gorako enpresen ehunekoa	2016	Eustat
Mikroenpresek sortutako enplegua (%)	2015	Eustat
LAN-MERKATUA		
Jarduera-tasa (%)	2015	Eusko Jaurlaritza
Langabezia-tasa (%)	2015	Eusko Jaurlaritza
Okupazio-tasa (%)	2015	Eusko Jaurlaritza
DEMOGRAFIA		
Azken hamarkadako populazioaren aldakuntza (%)	2016	Eustat
Biztanleria atzeritarra (%)	2016	Eustat
20-64 urte arteko populazioaren ehunekoa	2016	Eustat
Eskualdeen pisua populazioa oinarri hartuta	2016	Eustat
IKERKETA eta GARAPENA		
I+G barne-gastua	2015	Eustat
DOBko langileak	2015	Eustat
EKONOMIA DINAMISMOA		
2011 urtean sortu eta bizirik dauden enpresak	2016	Eustat
2011 urtean sortu eta mantendu den enplegua	2016	Eustat
KOOPERATIBEN PISUA		
Ekonomia sozialeko enpleguak enplegu guztiarekiko duen ehunekoa	2014	Eusko Jaurlaritza

Iturria: norberak egina

8.4 Aspektu teorikoak: erresilientzia



The economic resilience of regions: towards an evolutionary approach. Iturria: Simmie eta Martin (2010).

8.5 EAEko eskualdeak: dibertsitate ekonomikoa

8.5.1 Populazioa. Eskualdeen pisua

	2016
	Eskualdeen pisua
EAE	100%
Bilbo Handia	38,15%
Donostialdea	15,14%
Arabako Lautada	10,61%
Durungaldea	4,59%
Urola-Kosta	4,01%
Bidasoa Beherea	3,34%
Goierri	3,25%
Deba Garaia	3,07%
Plentzia-Mungia	2,98%
Deba Beherea	2,67%
Tolosaldea	2,56%
Gernika-Bermeo	2,42%
Kantauri Arabarra	1,65%
Enkartzioak	1,61%
Markina-Ondarroa	1,41%
Arratia-Nerbioi	1,26%
Gorbeia Inguruak	0,46%
Errioxa Arabarra	0,43%
Arabako Ibarak	0,24%
Arabako Mendialdea	0,15%

Iturria: norberak egina Eustateko Biztanleen udal-errodaren estatistikako datuetatik abiatuta.


8.5.2 Garapen Agentziak

<i>Garapen</i> Garapen Agentzien Euskal Elkartearen osaketa.	
Araba	Añanako Kuadrila; Laudioko Udala Garapen Agentzia; Vitoria-Gasteizko Udala.
Bizkaia	Amurrio Bidean S.A.U; Behargintza Basauri-Etxebarri S.L.; Gernika-Lumoko Lanbide Ekimenak Zentroa; EGAZ Txorierrri; Bermeo, Mundaka eta Sukarrietako Behargintza; Durangaldeko Behargintza; Erandioko Behargintza; Galdakaoko Udala-Behargintza; Getxolan; Inguralde; Bilbao Ekintza, E.P.E.L.; Lea Artibai Garapen Agentzia S.A.; Leioako Behargintza; Mungialdeko Behargintza; Sestaoko Udala-Behargintza; Urduñederra; Uribe Kostako Behargintza; Meatzaldeko Behargintza S.L.; Enkarterri Berri Zerbitzuak S.L.; Enkaturu.
Gipuzkoa	Beterri-Buruntza Udalak; Debagoieneko Mankomunitatea; Debegesa S.A.; Fomento de San Sebastian S.A.; Goieki Goierriko Garapen Agentzia S.A.; Iraurgi Lantzen S.A.; Oarsoaldea S.A.; Tolosaldea Garatzen S.A.; Urola Garaiko Garapenerako Agentzia S.A.; Urola Kostako Udal Elkarte.

Iturria: norberak egin a garapen.net webguneko datuetatik abiatuta


8.6 Analisi enpirikoa: erresilientzia eta enplegua

8.6.1 BPGaren bilakaera EAEn



Iturria: norberak egin a Eustateko datuetatik abiatuta.

8.6.2 Arabako eskualdeak. Outlierrak.



Iturria: norberak egina Gretl programa estatistikoa erabilita